

## OIHENARTEN AMODIOZKO POESIEN AZTERKETA KONPARATIBOA

Aurelia ARKOTXA,  
U.R.A. 1055 C.N.R.S., Bordeaux III

Oihenarten lan literarioetaz hitz egiterakoan lehen oztopoa garaiak dakargu, garaiazen urruntasunak, erran nahi da, guretzat, Erromantismotik lehenagoko den garai bat... Bigarren oztopoa hemen tratatuko den gaiaren baitan atxeman dezakegu: amodioaz mintzo zaigunean, Oihenart esperientziaz mintzo ote zen? aipatzen dituen emazteak, maitasun inguruan diren gertakizunak, bizi ote izan zituen? Hitz batez: Joana bere ezkontideaz egin hil-kexutik kanpo, esperientzia intimo baten aztarnak atxeman ote ditzakegu Oihenartek utzi dizkigun 21 amodiozko poesietan?

Erantzunak guretzat baldin baluke ere garrantzirik, ez dirudit horrela zenik preseski Oihenarten garaian, garai hori zentzu zabal batean hartuz.

Soako batek ekar diezagukeen berri bakarra hauxe liteke: Oihenartek ez dituela bere amodiozko poesiak emazte maite bakar baten zeinupean idatzi izan nahi, bertze ezagut zezazkeen poeta batzuk egin izan zuten gisan (xiii. mendean Dante-k Beatrice, xiv. mendean Petrarca-k Laura, xvi. enean, Olivier de Magny-k Louise Labé poeta, Maurice Scève-k Pernelle du Guillet («Délie») edo Agrippa d'Aubigné-k, bere *Primadera*-n Diane Salviati, eta Garcilaso-k Isabel Freyre...).

Oihenart hor Ronsard (1524-1585) baten (oroit honek aipatzen dituen Cassandre Salviati, Hélène de Surgères, Marie e.a.) eta Lope de Vega (1562-1635) baten ikuspuntutik (ez ote zituen honek Elena de Osorio, Isabel de Urbina eta Marta de Nevares kantatu?) frango hurbil dabil. Baina Oihenartek aipatzen dituen emazteei (Joanaren kasua aparte utzirik) zail liteke deitura bat ezartzea, menturaz ez direlaketz sekulan izan, sekulan izan ez ziren bezala Ronsard-ek aipatu emazte anitz.

Nahiz Oihenartek ez duen bere burua poeta handitzat hartzen<sup>1</sup> eta nahiz poema gutti utzi digun, konbeni zaigu aztertzea zein neurritan bere amodiozko

---

<sup>1</sup> Ikus *Art Poétique*

poesia lotzen ahal den Errenazimenduko garaian italieraz, frantsesez eta gaztele-  
raz, (nonbait mugatzekotan azterketa hau) loratu zen poesia mota batekin,  
amodio-hizkuntza mota eta kodifikatze batekin.

## I AMODIO-BIDE KODIFIKATUA:

### I 1 «Innamoramentoa» eta maitearen obsesioa:

#### I 1a: *Begi-bihotzetarako zauria*

Hona hemen maitasun sortzeaz diren bi aipamen:

«Ni, hala hala  
Tiraz bezala  
Hik joz geroz bihotzean», (III)  
«Noizten begiez  
Egin erautan zauria»; (IX)

Amodioa zauri da, beraz, sofrikario. Etsenplu ugari bagenituzke europako  
poesia neo-petrarkistean, ikus ditzagun, adibidez, espainol «Urrezko Mende»-  
etatik (xvi. xvii.mendeak)<sup>2</sup>. heldu zaizkigun biga:

«Quién me dijera, Elisa, vida mía,  
cuando en aqueste valle al fresco viento  
andábamos cogiendo tiernas flores,  
que había de ver con largo apartamiento  
venir el triste y solitario día  
que diese amargo fin a mis amores?  
El cielo en mis dolores  
cargó la mano tanto,  
que a sempiterno llanto  
y a triste soledad me ha condenado;  
y lo que siento más es verme atado  
a la pesada vida y enojosa,  
solo, desamparado,  
ciego sin lumbre en cárcel tenebrosa». (Garcilaso de la Vega,  
Nemoroso, in *Egloga primera*).

«Donde el dolor me lleva vuelvo al paso,  
tan cansado y perdido que no tengo  
para arribar fuerza, y nunca vengo  
a conceder holganza al cuerpo laso

<sup>2</sup> Espainiako literatur garai opariena xvii. mende erdia baino lehen bukatua zen, GONGO-  
RAREN heriotzarekin (1627), LOPE de VEGARENAREKIN (1635) eta QUEVEDOARENAREKIN (1645).

El mal me sigue de uno en otro paso,  
perpetuo y grave, tal que lo sostengo  
sólo por entender que en mí me vengo  
de cuanta pena por Amor yo paso». (*Fernando de Herrera*,  
soneto 88).

Baina, garai hori baino lehen, Santillana-ko Markesak (1398-1458), Petrarca imitatuz, hauxe zioen:

«Amor, el qual olvidado  
cuydava que me tenía,  
me fece bevir penado,  
sospirando noche e día.

(...)

Pero, Amor, pues me feçiste  
amador, faça me que crea  
ser amado de quien viste  
que me firió sin pelea:  
si no, dome por burlado,  
pues dona de tal valía  
me faze bevir penado  
sospirando noche e día» (Marqués de Santillana, *Decir*, in *Canciones y decires*).

Lan honen hastapenean Oihenarten poematarik atera bi aipamenek ongi erakusten zuten bezala, amorantearen sofrikario guzien hoberenduna da emaztea eta bereziki haren begiak, emaztearen begiek baitute amorantearen bihotza zauritzen —«E i feritor questi begli occhi foro» dio Ariosto-k (1474-1533), VI. sonetoan— begietarik baita amodioa sartzen eta maitalea defentsarik gabe gelditzen, Petrarca-k (1304-1374) zion bezala:

«Trovonmi Amor del tutto disarmato  
Et aperta la via per gli occhi al core», (*Dal Canzoniere*, III).

«Amor m'ha posto come segno a strale,

(...)

Da gli occhi vostri uscìo 'l colpo mortale,  
contra cui non mi val tempo né loco;  
da voi sola procede, e parvi un gioco,  
il sole e'l foco e'l vento ond'io son tale». (*Dal Canzoniere*,  
CXXXIII).

Ronsard-ek irudia bereganatuko du:

«Dans le serain de sa jumelle flamme  
Je vis Amour, qui son arc desbandoit,  
Et sus mon cueur le brandon éspandoit». (*Les Amours* III)

Edozoin tresna xorrotzek, zagi, nabal edo, Oihenarten poesia honetan bezala, tragasak, kolpa dezake amorantea:

«Noizten begiez  
Egin erautan zauria;  
Et'ene bihotz gaxoak  
Higanik, maita-sari,  
Herskailu ordari,  
Zitin tragasa-xiloak» (IX)

Amodio-zauriaren inguruan idatziko duten poetak ezin kontatuak izanen dira<sup>2bis</sup> hona zer dion Juan Boscán-ek:

«Qué haré? Pues estoy tal,  
que aunque está mi vida ufana,  
es mi llaga tan mortal  
que se tiene menos sana  
cuanto está con menos mal.  
Que el amor  
cuendo hiere, es muy mejor  
que sea su mal crecido,  
porque se pierda el sentido,  
con la fuerza del dolor».(XVI, *Libro Primero*).

eta Fernando de Herrerak:

«Yo vi unos bellos ojos, que hirieron  
con dulce flecha un corazón cuitado,  
y que para encender nuevo cuidado  
su fuerza toda contra mí pusieron.

<sup>2 bis</sup> Seguraski PETRARCAk ezagutzen zituen Mahai Borobileko eleberrietan («Les romans de la Table Ronde») atxeman daitezke itxura berberak, *Le Roman de Jaufré* (XIII.m.), okzitanieratik frantsesera itzulia den kontaketa ikus daitekeen bezala:

«Brunissen a soupiré et elle a jeté sur Jaufré un regard si expressif et si doux que, venant de l'oeil, il lui est descendu jusque dans le coeur, tandis qu'à elle, le sang montait du coeur au visage et la faisait rougir. Tous deux sont cruellement blessés d'un dard empenné par Amour qu'on ne voit pas venir et qu'aucune armure ne peut arrêter, tant son coup est subtil et puissant à la fois. «(...) Il blesse quand il lui plaît grièvement, délicieusement, doucement, sans qu'on voie venir le coup, sans qu'on l'entende, et sa blessure ne sera jamais guérie sinon par celui qui l'a faite. Mais comment peut-il frapper et blesser puisqu'il lui faut ensuite guérir? Je vous en dirai bien la raison: je vous ai blessé et vous, moi; si tous deux nous pouvons guérir mutuellement, nous serions fous de nous laisser mourir, car chacun de nous a hâte de guérir de son mal, tant il souffre. Mais quand l'un seulement a blessé l'autre, il faut déployer beaucoup plus de finesse, car le blessé doit chercher comment il pourra frapper à son tour celui qui l'a frappé, puisque rien sinon ne saurait le guérir. Et je vais vous dire comment il peut le frapper: en se mettant bien à son service et en lui faisant bien la conversation, en flattant, en se faisant humble». (in *La Légende Arthurienne*, 904.or.)

Yo vi que muchas veces prometieron  
remedio al mal, que sufro no cansado,  
y que cuando esperé vello acabado,  
poco mis esperanzas me valieron». (*Soneto 22*)

Santillana-k:

«E bien como la saeta  
que por fuerça e maestría  
sale por su liña reta,  
do la vallesta la envía;  
por semejante fazía  
a do sus puas lançava;  
así que mucho espantava  
a quien menos las temía» (*Infierno de los enamorados*, XVI, in  
*Decires narrativos*)

Maitearen begietarik pozoina ere ixur daiteke eta pozoin horrek ere begi-  
bihotzetarako<sup>3</sup> zauria dakarke, Maurice Scève-n neurtitz hauetan ikus daitekeen  
bezala:

«Si doucement le venin de tes yeulx  
Par mesme lieu au fonz du coeur entra», (*Délie XVII*)

Non eta begiak diren hoberendunak, maitearen begien leinurua bera (ikus  
Oihenarten «begi leinhuru» XXIV. poeman) lanjeros izanen da, begietatik  
jalgitzen baitira izpiak:

«E como la flama ardiente  
de sus çentellas embía  
en torno, de continente  
de sus ojos parescía  
que los rayos desparcía  
a do quier que regardava  
e fuertemente turbava  
a cualquier que lo seguía». (*Marqués de Santillana, Infierno de  
los enamorados*, XVI).

«El rayo, que salió de vuestros ojos,  
puso su fuerza en abrasar mi alma  
dejando casi sin tocar el pecho». (*Fernando de Herrera, soneto 8*)

Marsilio Ficino (1433-1599) filosofoaren lerro hauetan ideia berak atxeman  
daitezke baina hemen amodioaren sortzeak kutsu franko lanjeros eta beltzagoa  
hartzten du sorginkeriarekin parekatzen baita:

<sup>3</sup> OIHENART-en miresle handi zen LIZARDIren *Bihotz begietan* poemategia gogoratuz...

«Qui s'esmerveillera donc si l'oeil ouvert, et avec ferme attention dressé vers quelcun darde aux yeux de qui le regarde les fleches de ses rais: et ensemble avec ses fleches, qui sont le chariot des esprits tire ceste vapeur sanguine, que nous appellons esprit ? De là vient que la fleche veneneuse transperse les yeux, et d'autant qu'elle est dardee du cueur de qui la jette, pourtant elle se brandit au cueur de l'homme feru, quasi comme à une region qui luy est propre et naturelle. Là elle ferit et blesse le cueur, et en sa rondeur pyramidalle espesse et dure se reserre et s'epessit, et se convertit en sang. Ce sang estrange, lequel est élongné de la nature qui blesse, trouble le sang propre de celui quy a receu la playe. Et le sang propre troublé et presque empoisonné devient infirme et debile. De là vient l'ensorcellement, c'est à dire, le mal de l'oeil en deux manieres...»<sup>3bis</sup>

Innamoramentua sorginkeria batekin konpara dezakegunez geroz, maitalea arras norabaiteratua ibiliko da, maitearen itxuraz hartua, zorigaitz bat jasaten balu bezala:

«Gauik, egunik,  
Eztinat hunik,  
Hireki ezpaniz Argia:» (III)  
«Hi beti, beti, aut gogoan» (III)  
«Banaiz jaikiten,  
Banaiz etziten,  
Zu zatozt beti gogora» (IV)  
«Argitzean, eguerditan,  
Arratsean natzano,  
Gaua goizak ordaritan  
Biharamunt dazano  
Zuri huts, et' ez bertzeri  
Darraik'ene gogoa,  
Zuzaz, nola bait' er' eri,  
Nahiz izan sendoa». (XXIV)

Ikus Santillana-ko Markesa:

«De mortal golpe llagado  
en mi pecho, e mal ferido  
en el campo amortecido  
yo finqué desconsolado;

<sup>3 bis</sup> Ikus *Discours de l'honneste Amour sur le Banquet de Platon*. Guy LEFEVRE de la BRODERIE-k Frantsesera itzulia 1555-ean Parisen.

e prestamente robado  
yo fui como Proserpina,  
e de Cupido e Çiprina  
a pensamiento entregado». (El Sueño, in *Decires narrativos*,  
LXXII).

«Del cual soy apressionado  
en grandissimas cadenas,  
do padezco tales penas  
que ya non vivo, cuytado». (Fin, in *Decires narrativos*).

Kartzelatze<sup>4</sup> horretan maitearen hileen kuzkulek zer ikusi ukanen dute:

«Ile urrestatu horiek,  
Nadukate harturik,  
Begi leinhuru goriek,  
Lasto-legez garturik;»  
(...) (XXIV)

Ile urreztatuen artea Petraca-rengandik dator bixtan dena:

«Tra le chiome de l'or nascose il laccio,  
Al qual mi strinse, Amore;  
E da'begli occhi mosse il freddo ghiccio  
Che mi passo nel core» (Rime, LIX)

eta gero Ariosto-rengandik:

«La rete fu di queste fila d'oro,  
In che'l mio pensier vago intrico l'ale,  
E queste ciglia l'arco, e'l guardo strale,  
E i feritor questi begli occhi foro». (Soneto VI)

Ronsard-ek eta beste anitzek hartuko duten itxura:

«Puis çà puis là pres les yeulx de ma dame  
Entre cent fleurs un retz d'or me tendoit,

<sup>4</sup> Ikus *Le Roman de Jaufré*:

«Et pour l'amour (de Dieu), dame courtoise, parce qu'il vous a donné tant de valeur, de prix, d'esprit et de beauté, vous devez avoir pitié de moi, car vous m'avez conquis, assujetti, pris dans vos lacs, au point que je ne vois ni n'entends ni ne comprends plus rien, que je ne peux avoir ni joie ni plaisir sans votre amour, et si je ne l'ai pas, je vous le dis, je mourrai bien vite. (...)

«Hélas, mon Dieu! comment puis-je parler ainsi? Je pensais à chaque instant mourir quand je ne voyais pas sa charmante personne (...) Quand je la vois, mon mal, mon tourment, ma douleur redoublent. De l'amour, cela ? Jamais de la vie mais bien le pire mal qui soit au monde, qui m'anéantit de toutes les manières, me tue, m'emprisonne, me tient asservi aussi bien quand je ne la vois pas que quand je peux lui parler. Comment puis-je endurer ce tourment ?» (in op. cit. 906.or.)

Qui tout crespu blondement descendoit  
A flotz ondez pour enlasser mon ame». (*Les Amours* III-1552/  
1553).

Poetaren esperantzaz gabeko «kexeri, deitore, nigar-heraki»-ek (VI), amodioaren zauri latzek, heriotzea dakarkete; heriotzea arinagoa baita maitemina baino...

Pena, zorigaitza, bakardadean jasaten den bihotz-oinazea, heriotzearen presentzia, neo-petrarkistek, La Pleiade edo eta «Siglo de Oro»-ko poeta petrarkistek behin eta berriz erabiliko dituzten gaiak izanen dira, eta gehienetan joko poetiko hutsak ziren.

Heriotzearen presentzia horrek ez dauka, adibidez, ezer ikustekorik Oihenart sortu baino urte andana batzuk lehenago jadanik zabaltzen ari zen ezpiritu berriarekin: barrokoarekin. Ez da ahanzi behar 1550 (La Pleiade-n sortzearen urtea) eta 1580 arte Frantziako erreinuan giroa aldatu zela azkarki: 1560 ean *la conjuration d'Amboise*, hortik landa izanen zen errepresioa, eta hogoitabortz urte iraunen zuten erlisione gerlak (1572-ko, Barthélémy-ko sarraskian, 20.000 higenaute erahilak izan ziren...)<sup>4bis</sup>. Humanismoa iluntzen da, tragikoagoa bilakatzen, lirismo sentimentala itzaltzera doa eta natura alde guzietarik zartzan, zabaltzen, usteltzen, itxuraldatzen da.

Heriotze, haragi eta metamorfosiaren tematika barrokoak luzaz neo-petrarkismo eta Ronsard-en imitazioekin batera biziko dira haustura argirik gabe. Horregatik normala da ja xvii.mende erdian Oihenart batek idatz dezan aintzineko mendean bezalatsu (nahiz eta bere V., eta XVII. poemetan baden eritasun eta herioaren aipamen berezi). Bi mugimenduak konparatzeko eta digresione ttipi bat eginez, soako bat bota diezaiegun, XVI. mende bukaeran, garai berrien piztea seinalatzen zuten hiru mintzo berri hauei: Marc de Papillon de Lasphrise (1555-1599), Jean de Sponde (1557-1595) eta Agrippa d'Aubigné (1552-1630).

Marc de Papillon de Lasphrise-k itxura petrarkistak sentsualitatez beztitzen ditu, amodio-giro guzia itxuraldatu arte:

«Jamais ne me verrai-je après tant de regrets  
Nager à mon plaisir dedans l'amoureuse onde,  
Pignottant, frisottant ta chevelure blonde,  
Pressottant, suçottant ta bouchette d'oeillets,

<sup>4 bis</sup> Ikus B. OYHARÇABALEk dioena:

« On da (...) garai haiek Nanteseko ediktuaren ondokoak zirela gogoratuz, Oihenarten irekidura hori tolerantziaz ere oratua zela gogoratzea, ez baitugu haren lanetan herrazko edo aiherkunderzko elerik aurkitzen partida izan zituzkeen jendeen kontra, hala nola higenauten eretzera». (in *Jakin...*)



Mignottant, langottant, ammorcillant l'accès,  
 Mordillant ce téton-petite pomme ronde-  
 Baisottant ce bel oeil-digne soleil du monde-  
 Folâtrant dans ces draps délicatement nets ?  
 Ne sentirai-je point avec mille caresses  
 Le doux chatouillement des douces liesses ?  
 Ne serai-je amoureux mignonement aimé,  
 Recevant le guerdon de mes loyaux services,  
 Remuant, étreignant, mignardant les délices,  
 Haletant d'aise, épris, vaincu, perdu, pâmé ?»  
 (*L'Amour de Noémie*, 53).

Oihenart bezala, Maulen, baina urte batzuk lehenago (1557-an), sortu zen Jean de Sponde-n poesietan berriz, argiki sumatzen da kexadura bat, hestura bat:

«Je ne vois par tout que des ombres,  
 Je trouve mesme noirs les cieux,  
 Les jours luissans sont des nuicts sombres,  
 Les nuicts des Enfers à mes yeux,  
 Les Enfers mesmes si funebres  
 Sont beaux au pris de mes tenebres.

Ce monde plain d'inquietudes  
 Qui flotte tout autout de moy,  
 Ce ne sont que des solitudes,  
 Toutes plaines de mon esmoy,  
 Mais vuides de la douce vie  
 Que son absence m'a ravie.

(...)

Lors me rendant en mille sortes  
 Tant de plaisirs que j'ai perdus,  
 Tant et tant d'esperances mortes,  
 Tant de biens en vain attendus,  
 Trempez au miel de la presence  
 Les amertumes de l'absence». (*Les Amours*)

Eta Agrippa d'Aubigné-ri Petrarca-ren eragina sumatzen baldin bazaio ere Diane Salviati-rentzat sendi zuen esperantzarik gabeko amodioa (ez zen harekin ezkontzen ahal izan erlisione ezberdinetakoak zirelaketoz) aipu duen bere *Printemps de sieur d'Aubigné*-n, ikusiko dugu, *Les Tragiques* baino lehen, agertzen dela hor bisionedun baten amets-gaixtozko begirada, osoki barrokoa:

«Mille oiseaux de nuit, mille chansons mortelles  
 M'environnent, volant par ordre sur mon front:

Que l'air en contrepoids fâché de mes querelles  
Soit noirci de hiboux et de corbeaux en rond.

Les herbes sècheront sous mes pas, à la vue  
Des misérables yeux dont les tristes regards  
Feront tomber les fleurs et cacher dans la nue  
La lune et le soleil et les astres épars.

Ma présence fera dessécher les fontaines  
Et les oiseaux passants tomber morts à mes pieds,  
Etouffés de l'odeur et du vent de mes peines:  
Ma peine, étouffe-moi, comme ils sont étouffés !

Quand, vaincu de travail, je finirai par crainte,  
Au repos étendu au pied des arbres verts,  
La terre autour de moi crèvera, de sang teinte,  
Et les arbres feuillus seront tôt découverts».  
(Stances, I, in *Le Printemps*, 1573 inguruan)

Argi da ez dela horrelako indar trajikorik aurkituko Oihenarten amodiozko poesietan, honentzat, Errenazimenduko neopetrarkisten artean ohi den bezala, heriotzea joko bat besterik ez da, osoki abstraktoa:

«Orai, zure minez hiltzera  
Nohela, ikusiz berere ?» (I)

«Hiltzea gaitz da, gaitzago bana  
Mait'uken, et'ez mait'izana». (V)

«Betor betor herioa», (VI)

Chariteo-k hona zer dion:

«Morte si chiama Amor veracemente  
Quel che non ama vive, et colui more  
Che si consuma in amoroso foco». (XXIV)

Eta Santillan-ko Markesak:

I

«Bien cuidava yo servir  
en tal lugar,  
do me fizieran penar,  
mas non morir.

II

Ya mi pena no es pena  
;tanto es muerte!;  
non es dolor nin cadena,  
mas es muerte.

(...)

IV

Ciertamente non cuidara,  
ni creyera,  
que deste mal peligrara,  
ni muriera». (Canción in *Canciones y decires*)

Maitemintzeak bizi arazten dituen gorabeherak ardura antitesiarenen<sup>5</sup> medioz espresatuko dira, Petrarca-ren poesian ikus daitekeen bezala:

«vegghio, penso, ardo, piango; e chi mi sface  
sempre m'è inanzi per mia dolce pena:  
guerra è 'l mio stato, d'ira e di duol piena;  
e sol di lei pensando ho qualche pace.

Così sol d'una chiara fonte viva  
move 'l dolce e l'amaro, ond'io mi pasco;  
una man sola mi risama e punge.

E perché 'l mio martir non giunga a riva  
mille volte il dì moro e mille nasco;  
tanto da la salute mia son lunge». (*Dal Canzoniere*, CLXIV).

«Lloro e río en un momento», dio berriz Santillana-k,  
e soy contento e quexoso;  
ardid me fallo medroso:  
tales disformezas siento  
por vos, dona valerosa,  
en cuyo aspecto contemplo  
casa de Venus, e templo,  
donde su ymagen reposa». (Otro decir, III, in *Cantares y decires*).

Herio eta biziaren oposaketa, erabiliko da (gogora aitzineko kantuan Petrarca-ren «Mille volte il dì moro e mille nasco»).

<sup>5</sup> Hor ere Errenazimenduko iturri hurbilenak kortes literaturan aurki daitezke, ikus 2 bis eta 4. notak, ikus ere ondoko lerro hauek:

«(...) vous êtes celle que j'ai désirée, vous êtes ma mort, vous êtes ma vie, vous avez, soyez-en sûre, le pouvoir de me faire mourir ou vivre, vous êtes celle que, sans mensonge, j'aime, je crois, je crains, j'invoque, vous êtes ma joie, mon allégresse, vous êtes toute ma pensée, vous êtes mon plaisir et mon délice, par vous me viennent joie et tristesse, vous êtes celle qui peut m'aider et qui peut, si elle le veut, m'abattre, vous êtes celle dont je me réclame, vous êtes celle pour qui je brûle, vous êtes celle dont je me loue, vous êtes celle qui tient la clé de tout mon bien, de tout mon mal, vous êtes celle —que Dieu me sauve!— qui peut, à son vouloir, me rendre lâche comme un renard ou hardi, et faire de moi un sot ou un homme supérieur». (in op. cit. 911.or.)

Maurice Scève-n poesian, adibidez:

«Libre vivais en l'avril<sup>5bis</sup> de mon âge,  
De cure exempt sous cette adolescence  
Où l'oeil, encor non expert de dommage,  
Se vit surpris de la douce présence  
Qui, par sa haute et divine excellence,  
M'étonna l'âme, et le sens tellement  
Que de ses yeux l'archer tout bellement  
Ma liberté lui a toute asservie:  
Et dès ce jour continuellement  
En sa beauté gît ma mort, et ma vie». (Maurice Scève-*Délie*, VI,  
1544).

«Sendimenduen gerla» bertze oposaketa batek erakutsiko du: bero eta hotzarenak.

I 2b: *Beroa eta hotzaren arteko borroka*:

Emaztearen begietarik jalgi den zagiak, maitearen presentziak, amorantea sutan jartzen du:

«Su naiz bilhatu  
Ta kisu-labe.» (XVI)

Gogo arazten digu Serafino petrarquistaren «Se dentro porto una fornace ardente» (1548); Oihenart, literatur neopetrarkistak eta preziosoak hain higatu zuten, hotza eta beroaren arteko borrokaz baliatuko da ere innamoramentoa deskribitzeko.

Afrodita-ren senarra ez ote zen Efaiztoz, suaren jainkoa; bere maitalea Arez, gerlarena?; eta ez ote zen Eroz, Arez-engandik ukan zuen semea?:

«Neguan elhurte batez,  
Laztanak eskutabatez  
Sudurra zapaturik;  
Sudurrak min-har etzezan,  
Bana bertan sendi nezan  
Bihotza suharturik.  
Elhurraz gaineti, hotzik,  
Bai karroinik, bai izotzik,  
Badeia deus lurrean ?

<sup>5 bis</sup> PETRARCA-k LAURA apirilean ezagutu zuen:

«Mille trecento ventisette, a punto  
Su l'ora prima il dì sesto d'aprile  
Nel laberinto intrai: nè veggio ond'esca».  
(*Voglia mi sprona*, CCXI)

Elhurak alabadere  
Naduka ni, hotz badere,  
Errerik bihotzean. (XIV)

Halere ez dugu pentsatu behar gertakizun hori poetaren bizitza pertsonaletik heldu zaigunik. Hona zer dion preseski Clément Marot-ek (1496-1544):

«Anne par jeu me jeta de la neige  
Que je cuidais froide certainement;  
Mais c'était feu, l'expérience en ai-je,  
Car embrasé je fus soudainement.  
Puisque le feu loge secrètement  
Dedans la neige, où trouverai-je place  
Pour n'ardre point ? Anne ta seule grâce  
Eteindre peut le feu que je sens bien,  
Non point par eau, par neige, ni par glace,  
Mais par sentir un feu pareil au mien. (*Epigrammes*, 151)<sup>6</sup>

Bertze poema batean, eta ideia berari jarraikiz, hauxe dio Oihenartek:

«Laster hil dadin,  
Su haur egizu,  
Ilhaunt enadin,  
Ahal daidizu;  
«Maita nezazu,  
Halaz hil daite; (XVI)

<sup>6</sup> FRANCISQUE MICHELEk dio: «Marot-en itzulpen bat baizik ez dela» («qui n'est qu'une simple traduction de Marot», in *Le Pays Basque*, 461. or.), ez naiz bixtan dena batere ados izaten ahal horrelako jujamenduarekin, alde batetik ez delakotz egia «itzulpen» bat baizik ez dela (FRANCISQUE MICHELEk ez du euskal testua ematen ere, baizik eta hartaz egin duen frantses itzulpena...), erran nezake kasik Oihenarten poemaren hastapen hori, freskoago, espresibitatez beteagoa dela Marotena baino, eta bertzalde, ez dela sekulan ahanzi behar Errenazimenduan imitazioa birtute bat izan zela, hona, adibidez, zer dioen Joachim du BELLAY-k, *La Deffense et Illustration* liburuan (I. lib., IV. kap.), idazle latinoak dituela gogoan:

«Immitant les meilleurs aucteurs Grecz, se transformant en eux, les devorant, & apres les avoir bien digerez, les convertissant en sang & nourriture, se proposant, chacun selon son naturel, & l'argument qu'il vouloit elire, le meilleur aucteur, dont ilz observoient diligemment toutes les plus rares & exquis vertuz, & icelles comme grephes, ainsi que j'ay dict devant, entoint & appliquoint à leur Langue».

Argi dago ez duela OIHENARTEK MAROT «itzuli», baizik eta imitatu, DORAT, RONSARD eta du BELLAY-ren ikuspundua sagituz, euskal poesiari maila gorago bat emateko; bertzalde, OIHENARTEK arras ongi ezagutzen zituen xvi.mendeko teoria poetikoak eta La Pleiade deitu mugimendua. Harentzat imitazioa zen eginbeharra euskaraz, RONSARD-endako, du BELLAY-rendako bezala, hori baitzen bide bakarra, haien ustez, idatz-molde berri batetaz jabetzeko, H. WEBER-ek ongi erakusten duen bezala:

«Pour Ronsard et du Bellay, formés par l'enseignement de Dorat, la traduction se limite à un texte qu'il s'agit de rendre avec précision, tandis que l'imitation résulte d'une double pénétration: celle d'une civilisation et d'un style. Ceci les a conduits, il est vrai, à quelques excès surtout quand il s'agit des Italiens. Le génie de cette langue n'étant pas toujours très différent de celui de la langue française (et ceci étant plus vrai au xvième siècle que de nos jours). (...)» (in *La création poétique au xvième siècle*, 119. or.)

Hautsaren klitxe preziosoa Teobaldo-k erabilia, Marot-engan atxeman dezakegu:

«Pourquoy mon cueur en cendre ne se treuve» (*Epigrammes*, CXLVIII)

Irudi bera Scève-k (*Delie* XIII), bertze batzuen artean, erabiliko du eta ere, nolaz ez, Ronsard-ek.

«Il y a trop lon tems que les foudres jumeaus  
Des yeus de ma maitresse ont mis le mien en poudre.  
Je n'ai plus ni tendoons, ni arteres, ni nerfs,  
Venes, muscles, ni poux: les feux que j'ai soufferts  
Au coeur pour trop aimer me les ont mis en cendre».  
(*Continuations des Amours XLVIII*, 1555)

«Car si j'avoï de chair un coeur humain,  
Long tems y a qu'il fust reduit en cendre,  
Veu le brasier dont toujours il ard plain». (*Les Meslanges*, sonnet VI, 1555).

Hotza eta beroaren borrokarekin segitzeko, hona zer dioen Oihenartek jadanik aipatu den XIV poeman:

«Hotzak beroa du nitan,  
Urak sui'eraikiten».

Gogo arazten digu, bixtan dena, Petrarca-ren «e temo, e spero; et ardo, e son un ghiaccio». (*Dal Canzoniere*, CXXXIV) eta Ronsard-en nehurtitz hauek:

«en mesme instant j'endure froid & chault». (*Les Amours. Nouvelle Continuation des Amours*, XXI, 1578-ko aldakuntzan).

Louise Labé ahantzi gabe:

«Je vis, je meurs, je me brûle et me noie,  
J'ai chaud extrême en endurent froidure», (*Sonnets XVII et VII*, 1554).

Aipa genezazke ere, Garcilaso de la Vega:

«En medio del invierno está templada  
el agua dulce desta clara fuente,  
y en verano más que nieve helada». (*Egloga segunda*).

Fernando de Herrera:

«La fría nieve me abrasó en tu fuego;  
la llama, que busqué, me hizo hielo;  
el desdén me valió, no el tierno ruego». (*Elegía*, 63)

I 1c: *Bertzearen baitan bizitzea*

Oihenart-en poemetako amorantea maitearen itxuraz hartua dabila, maitearen baitan biziz:

«Bana ni bano  
Ez egundano  
Nehor zuretarragorik». (IV)<sup>6bis</sup>

Petrarca-ren baitan Laura bizi den gisan:

«E vo cantando (o penser' miei non saggi!)  
lei che 'l ciel non porìa lontana farme;  
ch'i' l'ho ne gli occhi; e veder seco parme  
donne e donzelle, e sono abeti e faggi». (*Dal Canzoniere*,  
CLXXVI)

Edo Pernette-n baitan M. Scève:

De me veoir vivre en toy trop plus, qu'en moy» (*Délie* CXLIV)

Ikus Ronsard:

«Toujours l'amant vit en l'aimée»: (*Les Meslanges*, X, 1555).

edo:

«Quelque rocher, quelques bois, ou montaigne  
Vous pourra bien éloigner de mes yeux:  
Mais non du coeur, que pront il ne vous suive,  
Et que dans vous, plus que dans moi ne vive», (*Les amours*  
1552-1553.XCII)

Eta ere Santillana-ko markesa:

«Mío no, mas todo vuestro  
soy después que me prendistes», (*Carta del Marqués a una Dama*,  
IV, in *Canciones y decires*).

«De mí, loco infortunado,  
por amores, tan sandío,  
que soy vuestro más que mía», (*Otras coplas que fizo el señor*  
Marqués de Santillana, VII, in *Canciones y decires*)

<sup>6 bis</sup> Ikus in *Le Roman de Janfré*:

«Ma dame, votre grande beauté, la perfection de votre personne, vos yeux, votre belle bouche, vos propos enjoués qui s'introduisent dans mon coeur m'ont si bien assujetti, pris, enlacé, que sur rien au monde vous ne m'avez laissé de pouvoir, car tout est en votre puissance: mon coeur, mon savoir, ma raison, ma vaillance, ma hardiesse, mon plaisir et ma volonté, vous m'avez dépossédé de tout, et tout est plus vôtre que mien\*» (in op. cit. 905. or.).

\* nik dut azpimarratzen.

Bat bestearen baitan bizitze horrek libertatearen galtzea du azkenean salatzen, Badajoz-eko Garcí Sanchez-ek ongi erakusten duen bezala:

«así yo, que os he mirado,  
soy tan vuestro, tan no mío,  
tan sujeto a os adorar,  
que aunque me fuese tornado  
mi franco libre albedrío,  
no podré libre quedar».<sup>7</sup>

Bainan galtze hori hain da denbora berean goxo!

«Adieu liberté ancienne,  
Comme chose qui n'est plus mienne,  
Adieu ma chère vie, adieu,  
Ta fuite ne me peut déplaire,  
Puis que ma perte volontaire  
Se retrouve en un si beau lieu». (Ronsard, *Les Meslanges*, X, 1555)

I 1d: *Fidelitate eta Kortesi*

Oihenarten amodiozko poemetan, behin baino gehiagotan aipatzen dira amodio bakarraren eta fidelitatearen gaiak, hona etsenplu batzuk:

«Nik eztut ehor maite zu beizi», (V)

«Erran baderaukat ezi  
Oro harena nizala,  
Nehor ere, hura bezi,  
Onhetsirik eztudala», (VII)

«Zuzaz bertzerik  
Nehor maiterik» (IV)

«Nik nola maita zitzanbat  
Orai eta sekulakoz» (XXV)

«Baletsa jaungoikoari  
Har nenzan zerbitzari  
Hark er', eta leristan/hanbat on zein nik hari», (XIII)

«Alabader'orano  
Nahi dutzertarano  
Kortes den jakin (...) (XIII)

<sup>7</sup> XVI.hastapeneko poeta, ikus R.O. JONES in *Siglo de Oro: prosa y poesía*, 58 or.



«(...) nuzu ikusiko  
 Hutsaz urrikiturik,  
 Zur' aurkian belauriko,  
 Sabel-lurreraturik» (XXIV)

Kortes poesian eta gero Petrarca-ren poesian gorai patuko diren gai horiek, anitz poeten obretan atxemanen dira gero, hona Santillana-ren neurtitz batzuk:

«E esto causa la razón,  
 e a mí non me desplaçe,  
 e todo lo satisfaçe  
 vuestra mucha perfección:  
 la qual bien reconosçida,  
 es mejor por vos morir,  
 que por las otras la vida  
 ver en palmas sostenida,  
 e para siempre vivir». (Decir de un Enamorado, III, in *Canciones y Decires*)

Fidelitate, amodio bakar eta kortesiaren gaiek Petrarca-ren poesian koherentzia atxikitzen badute (Laura kantatuz), Maurice Scève, Louise Labé edo Agrippa d'Aubigné-ren obretan bezala (hauek gehiago idazten zutena biziz), ez da horrela gertatuko Oihenartean, hor emazte berri guziei fidelitatea eskaintzen baitzaie...

Bertze gai bat, Petrarca-ren poesian eta ere Scève eta Ronsard-enean atxemanen dena: amodio trabatuarena, Laura, Pernelle, Cassandre ezkonduak ziren, Hélène ezin konkistatua, Diane Salviati katolikoa... Emazte horiek aipatu zituzten poetek, aintz ala gutti, beren bizi ttantta bat ixurtzera uzten zuten poesietan; Oihenarten kasuan, badirudi fidelitatearen gaia joko poetiko huts bat bertzerik ez dela, Ronsard-en poesi anitzetan gertatu den bezala eta bertze garaiko anitz poeten obretan.

## I 2: Amodio trabatua edo debekatua

### I 2a: Maitearen hotzetasuna

Oihenarten poema gehienetan emaztearengandik heldu den ukatzeak ainitzetan hotzaren sentazioa dakar. Orduan, hormarekin konparatzen dira begi eta bihotzak edo harria bezalako minerale eta burdin edo berun bezalako metalekin...

Hona, adibidez, zer dion Margaritaz:

«Margarita,  
 Badaidita  
 Othe huts zin egitez,

Begiz urdin  
Bezain gordin  
Zarela zur'egitez ?

(...)

«Gero zuzaz  
Zeinen luzaz  
Ukaturik nagoan,  
Eta halaz,  
Hanbat alas!  
Errekeitu gaxtoan». (II)

Eta Grazianaz:

«Zuzaz bertzerik  
Nehor maiterik  
Eztudalarik herrian,  
Zu bezain gorrik  
Ez hain gogorrik  
Eztudala d'aguerrian». (IV)

Urrunago, Xuriaren hoztasunaz kexatzen delarik:

«Eztun alzeiru, ez burdina,  
Ez-eta berun hotza,  
Ene bihotza  
Ban'aragiz dun egina». (IX)

Eta ere:

«Harriz da zure gogoa,  
Ezpada gogorra». (XV)

Ronsard-ek lehenago zioen:

«Douce beauté meurtrière de ma vie,  
En lieu d'un coeur tu portes un rocher»: (*Le Septième Livre de Poèmes*, XVI, 1569)

«Dites maitresse, é que vous ai-je fait ?  
E, pourquoi las ! m'estes vous si cruelle ?  
Ai-je failly de vous estre fidelle ?  
Ai-je envers vous commis quelque forfait ?  
Dites maitresse, é que vous-ai-je fait ?

(...)

Certes nenny: car plutost que de faire  
Chose qui deust, tant soit peu, vous déplaire,  
J'aiderois mieus mille mors encourir.  
Mais je voi bien que vous avez envie

De me tuer: faites-moy donq mourir,  
Puis qu'il vous plaît, car à vous est ma vie.  
(*Continuation des Amours*, XXXI, 1555).

Amorantearen suaren aitzinean, bazekien jadanik Laura eztiak eza eta gogortasuna erakusten:

«Mie venture al venir son tarde e pigre,  
la sperme incerta, e 'l desir monta e cresce,  
(...)  
Lasso! le nevi fien tepide e nigre,  
(...)  
prima ch'i' trovi in ciò pace né triegua,  
o Amore o madonna altr'uso impari,  
che m'hando congiurato a torto incontra». (*Dal Canzoniere*, LVII)

Santillana-ko markesa ere anderearen bihotz gogortasunaz kexu da:

«Yo vos serví lealmente  
con muy presta voluntad,  
e nunca fallé piedad  
en vos, nin buen continente:  
antes vuestra crueldad  
me faze ser padeçiente;  
¡guay de quien con vos contiende! (*Canción Canciones y decires*)  
«¿Quién vio tal feroçidat  
en angélica figura?  
¿Nin en tanta fermosura  
indómita crueldat?  
Los contrarios se ayuntaron  
cuytado, por mal de mí.  
Tiempo ¿dónde te perdí?  
que así me galardonaron?» (*Otro decir*, V, *Cantares y decires*)

Berdin Fernando de Herrera-ren kasuan:

«Duro es este peñasco levantado,  
(...)  
más duro es vuestro pecho y más helado,  
en quien la piedad no ha hecho asiento,  
ni el fuego de amoroso sentimiento  
en él jamás, por culpa vuestra, ha entrado». (*Soneto* 112)

Baina amorantearen etsipena ez dator bakarrik maitearen axolagabegatik baizik eta ingurumen sozialarengatik. Maitasuna gerla bat bezala presentatua

zaigunez, beti agertzen da traba bat eta emazteak maite duelarik gizona, zerbait hor dago maitasun horren loratzearen kontra joateko.

I 2b: *Kanpotik datozen oztopoak*

\* Ezkontz antolatua

Ezkontzen antolaketetan gurasoek daukaten boterea argiki dager. Farzari (Molière) pentsa arazten digu batzuetan VI. poemaren zati batean bezala:

«Eztuzu zer uka, zarel'ogenduru,  
Ez zer har ait'amen nahia ztakuru,  
Ezta, maitezko gauzetan,  
Haurren borx' ahalik hetan.

(...)

«Onarzun-truku huts, alab'ezkontzea,  
Ezta hori ezkontze, bana da saltzea;  
Haren erosle senarrak  
Zer merezi luke? adarrak». (VI)

Ikusiz gaineko bertsu hauetan mutila dela mintzatzen, zergatik ez pentsa VIII. poeman Oihenartek egoera bera, baina emaztearen aldetik ikusia, nahi izan duela erakutsi, joko literarioa zabalduz?

«Zenbat leihorra zabal baita,  
Ehon erakutsiko zaita  
Anderaurenik, ez eta nezkatetik,  
Ni nizan bezain, zorigaitzetakorik.

Maite dut, eta naiz maitatu,  
Bana naiz hanbat dezditxatu  
Ni maite nuen, nik maitenik dudana  
Ezt'ehon hauzu hurbiltzera nigana.

Nihauren azkazi hurrenak  
Dira poxelatzen dutenak,  
Eta nutenak nihaur er'asaldatzen,  
Zergati baitut hura hanbat maitatzen.

(...)

Maitarien jaun erregeak  
Higu ditu bortxa-legeak,  
Eta haren resuman libertatea,  
Da gobernari, eta nabusi alkatea.

Halere, poema honen bukaeran badirudi emaztea erregela sozialen kontra altxa daitekeela:

(...)

«Ni bizi eta hil nahi nuzu zureki

Eta hargatik utzi baniz  
 Ahaid', adiskidez fida niz  
 Zeruko jaunak, hari gomendaturik,  
 Enuel' utziko net deskonsolaturik».

Oihenart ezkontza antolatuaen kontra agertzen da azken bertso hauetan, bainan badirudi salaketaren egitea baino gehiago interesatzen zaiola joko prezioso baten egitea «Maitarien jaun erregea», Eroz-en libertatearen gaia, tratatzeko «Zeruko jaun erregea»-ren konplizitatearekin.

Maurice Scève (esperientziaz mintzo zenak) ere ezkontzaren traba instituzionala kritikatzeko du Jainkoaren libertatearen aintzinean:

«Seul avec moy, elle avec sa partie:  
 (...)  
 Elle le souffre: &, comme moins robuste,  
 Viole amour par ce lyen injuste,  
 Que droict humain, & non divin, a fait». (*Délie*, CLXL)

Maiteriaz ez dezake esperantzirik ukan, emazteak mesprexatzen duelakotz eta emaztea ezkontzera doalakotz. Azken finean Oihenartek, petrarkistek eta literatura preziosoak hainbertze higatuko duten gaia erabiltzen du: esperantzirik gabeko amodioarena<sup>8</sup>.

<sup>8</sup> Ez erromantismorik hor ikus.

Mario PRAZ-ek arrazoinarekin gogo arazten du;

«Les tendances, les thèmes, les tournures à la mode au temps d'un auteur forment un auxiliaire indispensable à l'interprétation de son oeuvre». (in «La chair, la mort et le diable, une approximation romantique —le romantisme noir—», (26. or.)  
 eta ere:

«Des approximations comme *baroque*, *romantique*, *décadent* etc., ont pris origine dans des révolutions déterminées de la sensibilité, et il ne sert à rien de les détacher de leur base historique pour les appliquer généreusement aux artistes les plus disparates (...)

Ainsi Pétrarque est surpris à faire du baroque et même à anticiper Proust, le Tasse à faire du romantisme, Marino du d'Annunzio. (...). (in. op. cit. 29. or.)

«Dans ce vers de Dante:

«*Quale ne' plenilunii sereni  
 Trivia ride tra le ninfe eterne*

*Che dipingon lo ciel per tutti i seni*»

(Telle, dans les nuits sereines de pleine lune, Trivia rit parmi les nymphes éternelles, qui enluminent le ciel dans tous ses replis..., Divine Comédie, Paradis, Chant XXIII, v25-27) le lecteur moderne a tendance à reconnaître un des cas les plus riches de magie évocatrice en vertu de la pure sonorité, du jeu des diérèses, de l'emploi de mots suggestifs en eumènes-*plenilunii*, *eterne*-et d'autres rappelant un mythe—*Trivia*, *ninfe*—. Disons-nous pour autant que Dante, dans ces vers, est un romantique met le lecteur moderne en mesure d'interpréter ces vers -là de cette manière ? (...)Un vers de Pétrarque:

«Fior, frondi, erbe, ombre, antri, onde, aure soavi» («Fleurs, feuillage, herbes, ombres, ondes, souffles suaves»)

extasiait les littérateurs du xvième siècle. «C'est le vers le plus beau, le plus sonore, et le plus plein que l'on lise chez les anciens et les modernes», écrivait Sebastiano Fausto da Longiano. Qui de nous modernes peut voir dans ce vers ce qu'on y voyait au xvie siècle?

Connaître les goûts et les sentiments propres à chaque époque, c'est la condition *sine qua non* pour interpréter une oeuvre d'art et l'histoire de la littérature ne peut se passer d'approximations comme celle que nous avons examinée jusqu'ici». (in op. cit., 37. or.)

Oihenarten amodiozko poemen erdia baino gehiago amodio mota horri konsakratua dago (I, II, IV, VI, VII, VIII, IX, X, XI, XV, XVI, XXIV, XXVII), baina amorantea beti prest da amodioz aldatzeko eta bizia kantatzeko...

\* «Izterbegiak»

Amodioak bertzeen jelsia eta gogo txarra tiratzen du, bere esistentzia bera lanjerrean erortzen da:

«Izterbegia mintzaten  
Delakoz guzaz, kexatzen  
Hark zaitu, hanti datorra,  
Zure niganat gogorra.  
Beraz, biho'en'artizarra  
Larderi'oro kanpora;  
Erakutsu zutan den garra,  
Eta zure bihotz gora:  
Izterbegia puxatuz,  
Eta zinez mehatxatuz  
Etx'ezazu, edo kuluaz,  
Aski ezpada mehatxuaz. (XV)

Bana herabe  
Stakuru gabe  
Dinat, Argia, jitera  
Hir' etx' irira,  
Leku agerira,  
Jenten minz' erazitera»: (III)

Maitaleek beren amodioa oztopo guztietatik aparte, libertate osoan, bizi nahi badute, gizartetik baztertzeko beharra senditzen dute.

**I 3: Bakartasuna**

*I 3a: Bakartasun eta segetetu:*

Maitalea, bere maitearen itxurak hartua, bere lagunengandik bereizten da:

«Lagun-artean,  
Hel nadinean,  
Elhaketan, erhogoan,  
Eznun dostatzen,  
Eznun mintzaten,  
Hi beti, beti, aut gogoan» (III)

Lehengo maitaleak uzten ditu:

«Ni zurezen has bezain sarri  
 Berhez nindizun bertarik,  
 Lehen hautatu maitagarri  
 Nituen, nindutenetarik,  
 Orai eta betiereko  
 Zureki tink egoiteko,  
 Eta berhez neholatan  
 Enankidizun gisatan» (XV)

Amodioa ezin kondatua da, segetretuzkoa; Petrarca-ren hitzak gogora ditzagun:

«Ben sai, canzon, che quanti'io parlo è nulla  
 al celato amoroso mio pensiero,  
 che di e notte ne la mente porte»; (*Dal Canzoniere*, CXXVII)

Elgarretaratzea gehienetan zaila izanen da:

«Zu nahiz batu  
 Eta mintzatu,  
 Hora nol' erbiratzean,  
 Bazterrez bazter;  
 Bethiere laster  
 Ari naiz zure hatzean;  
 «Bana jagoiti  
 Beheiti, goiti,  
 Zenbat ere bainabila,  
 Zur' oldez, ehun  
 Bat enaint' ehun  
 Urtez behin zurekila;  
 Aldiz naiz latzen,  
 Bilhatuz batzen,  
 Ban'ez ber zaitudanean;  
 Zer gaitz jasaiten  
 Dudan erraiten  
 Ezin derauzudanean» (IV)  
 Beraz higanik  
 Egin, jadanik,  
 Noiz nakidana dakidan  
 Jin, eta nura,  
 Gorde-lekura,  
 Eta hi han bat akidan. (III)

Azken poema honetan atxematen den «kadran orratzaren» irudiak, zagi edo nabalarena gogo arazten du karga erotiko handiago batekin.

Amoranteak leku bazter eta gordeak bilatzen ditu mihi luze eta izterbegien-gandik urrun, baina karrikan edo hirian (gehiagoko xehetasunik ez dugu), amorantea batzuetan emaztearen ganbarara igatera, ausartzen da<sup>9</sup>. Hemen ere ohar gaitezen Oihenartek sor arazten duen efektu komikoaz:

«Gauaz, epaizkaz, zur' etxen sartuz  
Em' ibiliz, eme hatsartuz,  
Eta haztatzez, ganbara bitan  
Iraganik, beldur handitan,  
Net hatshanturik, zur'oh'ondora  
Banatorra, zuk heiagora  
Egiten duzu, ni hautemanik,  
Et'ordu hartan, gaxoa nik,  
Leihoti jauziz, ohoin' iduri  
Hilpenan behar dut itzuri». (V)

Bertze poema batean ere agertzen da, xehetasunik gabe, garaiko iskribu eta antzerki irriegangarrietan hain aipatua zen gai hori:

«Gero azkenik,  
Beharrenik  
Emadazu dudana,  
Margarita,  
Jin-kongita  
Gauan behin zugana». (II)

Beraz, barnean ez daitekeelarik elgarretara, ganbaran (ala elizan Ronsard eta Hélène-n kasua bezala, «Bienheureuse l'Eglise, où je pris hardiesse/De contempler ses yeux qui des miens sont le jour», Sonnets pour Hélène, Liv. I, XXXIX), «bazter leku»-etara ihes egiten da.

Poema horietan ez dugu gure herriko leku berezien aipamenik atxemanen Petrarca-ren zenbait poemetan gertatzen den bezala:

«Quella per cui con Sorga ho cangiato Arno», (*Dal Canzoniere*, CCCVIII)

<sup>9</sup> Ez da hori bakarrik itxura literario bat, hona zer dion S. F. MATTHEWS GRIEGOK: «Connues sous le nom de *bundling* en Angleterre, de «*marâchinage*», «*albergement*» ou «*créantailles*» en France, différentes formes de relations pré-nuptiales (autorisées par les parents), d'expériences sexuelles, et même de cohabitation ont été relevées à travers l'Europe. *Bundling* signifie en général faire la cour à une jeune fille la nuit, dans une chambre séparée du reste de la famille, au lit, dans le noir, et à moitié nu. Toutefois cette expérience (...) n'entraîne pas de grossesse. (...) Dès le xv<sup>e</sup> siècle, surtout à partir du Concile de Trente (1563), l'Eglise catholique commence une lutte systématique contre toutes les formes de relations sexuelles pré-nuptiales. Dans les communes de Bayonne et d'Alet (...) les relations sexuelles au cours des fiançailles sont la coutume jusqu'en 1640, année où elles deviennent cause d'excommunication». (in *Histoire des femmes, xv<sup>e</sup> au xviii<sup>e</sup> siècle*) Fréquentations amoureuses et sexualité avant le mariage» kapituluau, 79/80 or.



«Po, ben puo' tu portartene la scorza  
di me con tue possenti e rapide onde», (*Dal Canzoniere*, CLXXX)

eta hari segituz Maurice Scève-enetan:

«Tu cours superbe, ô Rhosne, flourissant  
En sablon d'or, & argentines eaux». (*Délie* CCVIII)

Diren irudiak, petrarkisten idatz moldeak segituz, amorantearen maitemintzeari lotuak dira eta nahiz iduritzen zaigun han hemenka gure herriko zuhaitz, baratze eta lore atxematen ditugula, gehienetan itxura konbentzionala batzu bertzerik ez dira. Amoranteak bazter lekuak maite dituzenez geroz, naturan du atxemanen bere kontsolazione bakarra.

#### I 4: Amorantea eta Natura

Petrarca-ren poesian, amoranteak bere zorigaitza bakardadean jasaten du, ez ditu jende tratu eta jendez beteak diren tokiak gogoko, gustora sendi da naturaren artean, bihotzean dakarren segetua zuhaitz, oihan eta bazterrekin partitzen ahal baitu; han du bakarrik bakea lortzen.

Bazterrak eta poetaren arteko konplizitate bat horrela da sortzen.

##### I 4a: *Naturaren sinpatia*

Oihenarten poesian arras gutti agertzen zaigu Petrarca-k eta neo-petrarkistek hainbetez aldiz tratatu zuten gai hori; hastapenean, bizi zen sendimendu batekin lotzen ahal zen gaia, bertez kasu ainitzetan gertatu zen bezala, gai konbentzionala bilakatuko da Petrarca-ren segitzale anitzentzat, ez hala bixtan dena Maurice Scève batentzat edo Agrippa batentzat.

Hona Oihenarten poesian naturaren sinpatiaz atxeman dezakegun aipamen bat:

Neguan datza  
Landan izotza:  
Ezt'en'ohatza  
bezanbat latza. (XVI)

##### I 4b: *Amodio eta Naturaren sasoinak*

Emaztearen edertasuna, zuhaitz lilitu baten par baldin bada, harekin maitasuna egitea, haren fruituak jastatzea<sup>10</sup> bezala liteke, bainan, preseski, esker txarreko ederrak ez du bere gorputza fruitutzero utzi nahi:

<sup>10</sup> Hemen sagarraren jatea; Laur karbarien eresian, sagarraren itxurak Biblian Ebak jaten duen fruitu bezala agertzen da, hemen, aldiz, Antikitatean zuen sinboloa atxikitzen du. Laur karbaren eresiaz, ikus in *Bulletin du Musée Basque* ° 133, 1er Semestre 1992, J.B.O. ORPUSTANen artikulua «Réalisme rural et Fantaisie narrative chez A. d'Oyhenart...»

Sagartzeak, lilitan jarten  
 Bad'eta, lilitu-ondoan  
 Orstatzen ere, gero ekarten  
 Du frutua ber'aroan  
 Nik hatsean lili-orde, zutan  
 Bat' ukan ditut karezak,  
 Gero ere bai orsto lekutan,  
 Aski handirik promesak;  
 Bana zer probetxu azkenean  
 Haltza bezalakaturik,  
 Lilitu, orstatu zarenean  
 Ezpadakarzu fruturik. (XXVII)

Altzaren itxurak agertzen duen bezala, Oihenart batzuetan euskal iturri herrikoietaz baliatzen da, nahiz eta bertsu horiek gogo arazten dizkiguten ere bertze oihartzun batzuk:

Adibidez, sagarraren itxura Ronsard-en bertsu honetan:

J'avois l'esprit tout morne & tout pesant,  
 Quand je receu du lieu qui me tourmente  
 La pomme d'or comme moy jaunissante  
 Du mesme mal qui nous est si plaisant.  
 Les pommes sont de l'Amour le present:  
 Tu le sais bien, ô guerrière Atalante,  
 Et Cydipé qui encor se lamente  
 D'elle & d'Aconce & d'Amour si nuisant.

Sasoinen kurritzeak amodioaren esperantza gabetasuna gehi dezake, denboraren ezin geldituzko zirrizatzeak zoradura bat sortaraz, indar handiko neurtitz hauek irakurtzean:

Geroz oihana lilitu da  
 Bait' ar' orstatu lauretan  
 Ud'ere negu, negi'uda  
 Gerthatu da hain berzetan (I)

Petrarca-k ere dio, ez lau, baizik eta zazpi urtez, badabilela, bazter batetik bertzera, gau eta egunez, beroan eta elurrean<sup>11</sup>, Lauraz «kexeri eta deitore»:

«chè, s'al contar non erro, oggi ha sett'anni  
 che sospirando vo di riva in riva  
 la notte e 'l giorno, al caldo ed a la neve». (*Dal Canzoniere*, XXX)

<sup>11</sup> Beroa eta hotzaren arteko jokoa, negua eta udarena bilaka daiteke ere OIHENARTen I. poeman bezala (11.neurtitza).

Denboraren pasatzeak hiltzea hurbil arazten du, amodioa eta heriotzearen gaiak batuz, Petrarca-ren bertze poema batean atxeman dezakegun bezala:

«La vita fugge, e non s'arresta una ora,  
e la morte vien dietro a gran giornate,  
e le cose presenti, e le passate  
mi danno guerra, e le future ancora;  
e 'l rimembrare e l'aspettar m'accora  
or quinci or quindi, (...)» (*Dal Canzoniere*, CCLXXII)

Bainan, herioaren atarira garaman denborak, bultza gintezke ere biziaren plazerrak alaiki jastatzera oraiaz baliatuz, Oihenarten espresibitate handiko nehurtitz eder hauetan ikus dezakegun bezalaxe:

Badihoakun denbora,  
Hurrantzen zahartzea,  
Maitazarrea  
Harzan engoiti gogara... (XI)

Heldu zaigu hor gogora Catullo-ren errana: «Vivamus, mea Lésbia, atque amemus».

Ronsard-ek hain bereganatuko zuena:

«Vivez, si m'en croyez, n'attendez à demain:  
Cueillez dès aujourd'hui les roses de la vie».  
(Sonnets pour Hélène II, XXIV, 1578)

eta Garcilaso de La Vega-k:

«coged de vuestra alegre primavera  
el dulce fruto<sup>12</sup>, antes que el tiempo airado  
cubra de nieve la hermosa cumbre». (Soneto XXIV)

Du Baïf-ek, bere mintzatzeko manera zuzenean, ideia bera agertuko du:

«Belle, que vous & moy serons bien à reprendre,  
Hé si le bien present nous dédaignons de prendre  
Tant que voyans le jour icy nous demourons». (*Amours diverses*  
I)

Oihenarten «Badihoakun denbora»-ren gibelean argi dago entzun dezakegula Petrarca-ren «Il tempo passa» (XXXVII); interesa baluke ere aipatzea gai berarekin Scève-k sortarazten duen zoradura:

<sup>12</sup> Ikus 10. nota. GARCILASO-ren neurtitz hauek OIHENARTen XXVII. poemarekin paraleloan ezar daitezke:

«Bana zer probetxu azkenean  
(...)  
Lilitu, orstatu zarenean  
Ezpadakarzu fruturik»

«En moy saisons, & aages finissantz  
De jour en jour descouvrent leur fallace,  
Tournant les Jours, & Moys, & ans glissantz», (*Délie* XXXXVII)

Denboraren pasatzea eta bereziki heriotzaren gaia aipatzeko agertuko zaigu ere lore ximelduaren itxura, ez preseski amodiozko poema batean, baizik eta bere emazte zenaz Oihenartek idatzi zuen hil-kexuan:

«Girofleiak, uda beroan,  
Ur-peituz lehenik ximaltzen  
Baitir' eta net gero galtzen» (XVII)

Virgilio, Ovidio, Ronsard eta bertze anitz poetek erabili zuten gai hori aurkitzen dugu ere Santillana-ko Markesaren bertsu batean maiteaz hustu den hiriaren metafora gisa:

## I

«Gentil dama, tal parece  
la ciudad don vos partistes  
como las campañas tristes  
do el buen capitán fallece.  
(...)

## II

«Parece como las flores  
en el tiempo del estío,  
a quien fallece rocío  
y fatigan los calores». (Otras coplas que fizo el  
Señor Marqués de Santillana)

I 4c: *Itxura batzuk*:

Emaztearen gorputza laudatzeko, poetek gehienbat naturan aurki zezazketen itxura adierazgarrienak erabiltzen zituzten. Halere, kontestu berezi horretatik kanpo agertzen diren bertze itxura batzuk ere interesa merezi dute, hala nola:

*Girofleiak*: ikusi dugunez lorearen sinbolika orokorrari lotua agertzen zaigu, biziaren hauskortasunaren seinale ximeltzen hasten den bezain laster; Theokritoren idazki batean girofleia (xuria) biziturri eta plazerraren sinbolo izanen da, arrosa, mirubelar eta ardoarekin batera:

«Bainan egun hartan mirubelar edo arros edo giroflei xurizko korona bat buruan, oporrean hartuko dut ardoa, sutondoan etzanik nagola». (Thalisiak)

*Sagarrondo, sagar*: XXVI. poeman ikusten ez den bezala, grekoerromatar Antikitatean, sagarra amodioaren sinboloa zen. Catullo-k eta Ovidio-k erakusten

dute sagarraren eskaintzea amoros komita bat zela<sup>13</sup>. Gainera 1571.eko Ronsard-en komentagile batek azpimarratzen du zer analogia baden sagarraren borobiltasun eta emaztearen gorputzaren borobiltasunaren artean (buru, begi, matel, titi, sabel, izter...)<sup>14</sup>.

*Baratze*: bereziki XXVI an.<sup>15</sup>. Baratzearen inportantzia Antikitate guzian dager; grekoerromatar zibilizazioan, bixtan dena, baita ere Sortaldeko lurraldeetan, Pertsian bereziki.

*Artizar*: XV. poeman amoranteak «en' artizarra» erraten dio emazte maitatuari. Izarraren itxura hori arras erabilia izan da amodiozko poesian, artizarra Venus baita, Fernando de Herrera-ren neurtitz hauek erakusten duten bezala:

«Hacer no puede ausencia que presente  
no os vea yo, mi Estrella, en cualquier hora,  
que cuando sale la purpúrea aurora  
en su rosada falda estáis luciente.

Y cuanto el sol alumbra el Oriente  
en su dorada imagen os colora,  
y en sus rayos parecen a deshora  
rutilar los cabellos y la frente.

Cuando ilustra el bellissimo lucero  
el orbe, entre los brazos puros veo  
de Venus encenderse esa belleza.

(...)» (Soneto 72)

## II EME-EDERTASUNAREN KODIFIKATZEA

### II 1: Europar iturriak:

Oihenarten poesietan agertzen diren emazteen (ezkontidearen hil-kexua salbu) kalitate handiena edertasuna da eta edertasun hori ez da lanjerosa, ez da «bekatu» seinale. Oihenartek goraiatzen duen edertasuna Errenazimenduak Europa osoan zabaldu zuenaren ildoetatik dabil, erran nahi da jadanik arras erregela berezi batzuen pean mugatua. Hona zer dioen Sara F. Matthews Griego-k:

<sup>13</sup> Ikus OVIDIO-n (*Heroidez*, XX) CIDIPEn ipuina.

<sup>14</sup> RONSARDen komentagile batek zioen, 1571ko argitalpenean:

«Tout ce qui est de plus délicat en amour tire sur la forme ronde, la teste, les yeux, les joues vermeilles... les tetins, l'enflure du ventre, les genoux, le rond des cuisses et autres belles parties de la femme».

Ikus ere Belleau-k zioena:

«Toute sorte de pommes et principalement les oranges sont dédiées à la Volupté, aux Grâces et à l'Amour».

<sup>15</sup> Ikus J.B.ORPUSTANen artikulua (in op. cit.)

«Alors que la culture des clercs au Moyen Age tendait à inculquer la peur de la beauté féminine et redoutait le pouvoir qu'elle donne à la femme sur l'homme, la Renaissance néo-platonicienne attribue une valeur nouvelle à la beauté en déclarant qu'elle est le signe visible et extérieur d'une «bonté» intérieure visible. La beauté ne représente plus un danger, c'est un attribut nécessaire de la personnalité morale et de la position sociale. Être beau devient une obligation, car la laideur est associée à l'infériorité sociale et même au vice. (...).

Exaltée comme garantie de probité morale et source d'inspiration pour ceux qui ont le privilège de contempler un joli visage, la beauté n'en est pas moins codifiée par une production massive de poèmes d'amour, de traités de civilité et de recettes de fards. Elle s'inscrit dans une définition précise, et les femmes se donnent beaucoup de mal et dépensent des sommes folles pour rendre leur apparence conforme à des critères qui resteront presque immuables pendant toute l'époque moderne. En Italie, en France, en Espagne, en Allemagne, en Angleterre, les règles de l'esthétique sont les mêmes: peau blanche, cheveux blonds, lèvres et joues rouges, sourcils noirs. Le cou et les mains doivent être longs et minces, le pied petit, la taille souple. Les seins sont fermes, ronds et blancs, avec des aréoles roses. La couleur des yeux peut varier (de préférence verte en France, brune ou noire en Italie) et on fait parfois des concessions, aux cheveux bruns, mais les canons de l'apparence féminine restent pratiquement identiques pendant quelques trois cents ans».<sup>16</sup>

Aipatu behar litezke, gainera, Castiglione-ren *Il Cortegiano*-k (1528) eta *Morpugo*-ren *Costume de la donne*-k (1536) bere hogeita hamahiru beteginekin XVI. bai eta XVII. mendean Europan ukanen zuten garrantzia.

Bertzalde, gorago aipatzen denaren osagai bezala, erran beharra dago edertasun kodifikatu horren erroak literaturan aurki daitezkeela jadanik eresigile latinoen obretan (Catullo, Ovidio, e.a.); hor, emaztearen edertasuna aipatzeko, gero hain erabiliko diren itxura batzuk agertzen baitira: larrua elurra bezain xuria da eta matelak xuri horren gainean arros lore-hosto gorri, begiak izar, *Propercio*-ren neurtitz hauetan bezala:

«Nec me tam facies, quam sit candida, cepit  
(lilia non domina sint magis alba mea,  
ut Moeotica nix minio si certet Hiberno,  
utque rosae puro lacte natant folia)  
nec de more comae per levia colla fluentes,  
non oculi, geminae, sidera nostra, faces».<sup>17</sup>

<sup>16</sup> in op. cit., 70. or.

<sup>17</sup> H. WEBER-k zitatu in op. cit. 164. or.

Erdi Aroan berriz, Dama kantatzen eta laudatzen da «eskerra» («la mercy») ukateko, H. Weber-ek dion bezala: «l'amour courtois n'est pas platonique»<sup>18</sup> urrunago gehituz:

*«Le Roman de la Rose de Guillaume de Loris codifie dans une certaine mesure la tradition courtoise, il y joint l'habitude scolastique de la décomposition des sentiments (...)*

*En Italie le culte de la femme élaboré par la poésie provençale se teinte de sentiments religieux à l'époque du «Dolce Stil Nuovo». De la Vita Nuova à la Divine Comédie la Béatrice de Dante s'élève de l'idéalisation amoureuse au plan théologique. (...) Si le succès de Pétrarque semble éclipser le prestige des poètes du «Dolce stil nuovo», ils retrouveront une certaine faveur à la fin du xve siècle, lorsque Laurent de Médicis rassemble la plupart de leurs poésies dans un recueil qu'il offre à Frédéric d'Aragon vers: 1476-1477.*

Avec Pétrarque, le culte de la femme s'enrichit de toutes les nuances et de toutes les oscillations de la vie intérieure, tandis que la beauté de la femme stylisée en quelques images éclatantes: cheveux d'or, col de lait, joue empourprée, éclat des yeux s'associe à tous les charmes de la nature au sein de laquelle le poète vient rêver. La hantise de Laure se lie ainsi au calme de la retraite qui arrache Pétrarque à la dispersion des plaisirs mondains. L'amour semble par moment conduire à la découverte de la vérité intérieure, mais la tristesse, la souffrance de la passion insatisfaite sont à leur tour un obstacle à la paix de l'âme. (...)».<sup>19</sup>

Kritiko berak, gero, Serafino, Chariteo eta Tebaldeo bezalako xv.mende bukaerako petrarkista preziosoak aipatzen dituelarik, azpimarratzen du nola hauek bakarrik Petrarca-ren itxura eta antitesiak dituzten erabiltzen eta nola galtzen den emozio zinezkoen hunkigarritasuna «Ce qu'ils recherchent c'est beaucoup moins l'émotion que l'effet de surprise»<sup>20</sup>.

Neo-petrarkistek emaztearen edertasunak oraino Petrarca-k baino xehetasun gehiagorekin ospatuko dituzte; 1535 inguruan, Marot-ek moda hori zabalduko du bere *Blason du beau Tetin*-ekin, Erdi Aroko Blasoinen (Blason, frantsesez) usaia amodiozko poesian sartuz:

«Tetin refaict, plus blanc qu'un oeuf,  
Tetin de satin blanc tout neuf,  
Tetin, qui faict honte à la Rose,  
(...)

<sup>18</sup> H. WEBER in op. cit. 165 or.

<sup>19</sup> H. WEBER in op. cit. 166 or.

<sup>20</sup> H. WEBER in op. cit. 166. or.

Ikus artikulu honen 1.zatia.

Tetin dur, non pas Tetin voyre  
 Mais petite boule d'Ivoice  
 Au milieu duquel est assise  
 Une Fraise ou une Cerise  
 (...)  
 Tetin donc au petit bout rouge,  
 Tetin qui jamais ne se bouge,  
 Soit pour venir, soit pour aller,  
 Soit pour courir, soit pour baller,  
 (...)  
 Quand on te voit, il vient à maintz  
 Une envie dedans les mains  
 De te tater, de te tenir:  
 Mais il se fault bien contenir  
 D'en approcher, bon gré ma vie,  
 Car il viendrait une autre envie.  
 (...)  
 A bon droict heureux on dira  
 Celuy qui de lait t'emplira,  
 Faisant d'un Tetin de pucelle,  
 Tetin de femme entiere et belle. (*Epigrammes* 1535)

Ahantzi gabe Ariosto-k bere hamalaudun edo sonetoetan ematen dituen etsenpluak:

«Madonna, sète bella e bella tanto,  
 Ch'io non veggio di voi cosa più bella;  
 Miri la fronte o l'una e l'altra stella,  
 Che mi scorgon la via col lume santo;  
 Miri la bocca, a cui sola do vanto,  
 Che dolce ha il riso e dolce la favella,  
 E l'aureo crine, ond'Amor fece quella  
 Rete che mi fu tesa d'ogni canto;  
 O di terso alabastro il collo e il seno,  
 O braccia o mano, e quanto finalmente  
 Di voi si mira; quanto se ne crede,  
 Tutto è mirabil certo, e nondimeno  
 Non staro ch'io non dica arditamente  
 Che più mirabil molto è la mia fede». (*Lirica*, soneto XXV)

Eta bereziki Orlando Furioso-n Alcina-ren potreta egiten duelarik:

«Di persona era tanto ben formata,  
 Quanto me'finger san pittori industri;  
 Con bionda chioma lunga et annodata;  
 Oro non è che più risplenda e lustri.



Spargeasi per la guancia delicata  
 Misto color di rose e di ligustri;  
 Di terso avorio era la fronte lieta,  
 Che lo spazio finia con giusta meta.

Sotto duo negri e sottilissimi archi  
 Son duo negri occhi, anzi duo chiari soli,  
 Pietosi a riguardare, a mover parchi;  
 (...)» (*Orlando Furioso*, VII)

La Pleiade-koentzak ba Petrarca eta ba Ariosto-ren etsenpluak arras garrantzizkoak izanen dira emaztearen potreta egiterakoan, hona Ronsard-en *Les Amours*-etik ateraia den etsenplu bat:

«Ces liens d'or, ceste bouche vermeille,  
 Pleine de lis, de roses, & d'oeilletz,  
 Et ces couraulx chastement vermeilletz,  
 Et ceste joue à l'Aurore pareille:  
 Ces mains, ce col, ce front, & ceste oreille,  
 Et de ce sein les boutons verdeletz,  
 Et de ces yeulx les astres jumeletz,  
 Qui font trembler les ames de merveille» (*Les Amours*, VI)

Eragin berdina sumatzen zaio ere Santillana-ko Markesari bere alaben edertasuna goraiatzan duelarik:

II

«Fruentes claras e luzientes,  
 las cejas en arco alçadas,  
 las narices afiladas,  
 chica boca e blancos dientes,  
 ojos prietos e rientes,  
 las mejillas como rosas,  
 gargantas maravillosas,  
 altas, lindas al mi grado.

III

Carnoso, blanco e liso  
 cada cual en los sus pechos,  
 (...)  
 dos pumas de paraiso  
 las sus tetas ygaladas,  
 en la su çinta delgadas  
 con arco aseado.

## IV

Blancas manos e pulidas,  
 e los dedos no espigados,  
 a las juntas no afeados,  
 uñas de argent guarnidas,  
 rubies e margaridas,  
 çafires e diamantes,  
 axorcas ricas, sonantes,  
 todas de oro labrado». (Cantar que fizo el Marqués  
 de Santillana a sus fijas loando la su fermosura, in  
*Cantares y decires*)

Ronsard-ek Nabarra-ko Margaritarentzat idatzi zuen Blasoinean aipatuko du haren egiazko ileen kolorea, baina, halere, ezin da egon ile urreztatuen aipamenik egin gabe:

«Son chef divin, miracle de nature,  
 Estoit couvert de cheveux ondelez,  
 Noüez, retors, rescrapez, annez,  
 Un peu plus noirs que de blonde teinture».

Biziki zaila zen, beraz, emazteari originaltasun bat ematea; Ronsard, bertze nonbait, ausartzen da erratera Cassandre beltzarana dela bainan gehienetan emazte ile urreztatuaren kodigoaren barrenean gelditzen da. Lope de Vega-k, berriz, momentu batean dioelarik «Pero aunque sois morena sois hermosa» (Soneto 149) erakutsi nahi du badakiela kodigo horiekin hausten...

Oihenartek emaztearen gorputzaz egiten dituen aipamenak arras ohiak dira salbu, hor ere, Beltxaran baten aipamena (ohar gaitezen, haren gorputzaren edertasuna duela bakarrik aipatzen, bertze deskribapenik egin gabe:

«Zer probetxu edertazuna  
 Da hire gorputzean». (XI)

Bainan ikus dezagun, xehetasun gehiagorekin, zer nolako emazte-edergintza agertzen den Oihenarten poesietan.

## II 2: Emazteen izenen semiologia:

Emaztearen edertasun fisikoa aipatu baino lehen. haren izena bera edertasun seinale bezala agertuko zaigu, ez baitira, ikusiko dugunez, au hasard erabiliak izanen.

Joanaren kasua salbu, aise pentsa daiteke, sarreran aipatuaren arabera, gainerako izenak fiktiboak direla.

Etsamina ditzagun. Denetara zazpi dira<sup>21</sup>, zazpi birtuteak bezala; Ronsard-

<sup>21</sup> 1657 urteko liburuan direnei, 1664-ean (HEGIATEGik dioenez) publikatuak izan zirenak gehituz.

ek erraten du nonbait ez dela birtute bat aski, zenbaki betea («le nombre entier»), erran nahi da zazpi (hutsik gabea, «en rien defectueux»), behar dela. Horregatik ditu Ronsard-ek aipatzen Helena-ren zazpi birtuteak, tradizio luze batek «beteginaren» zeinu bezala erabili izan dituenak (lau bertute kardinalak: prudentzia, negurtasuna, xuxentasuna, indarra, gehi hiru teologoak: fedea, esperantza, karitatea) bere gisara moldatuz:

Une seule vertu, tant soit parfaite & belle,  
 Ne pouroit jamais rendre un homme vertueux:  
 Il faut le nombre entier, en rien defectueux:  
 Le Printemps ne se fait d'une seule arondelle.  
 (...)  
 Icy à ta beauté se joint la Chasteté,  
 Icy l'honneur de Dieu, icy la Pieté,  
 La crainte de mal faire, & la peur d'infamie:  
 Icy un coeur constant, qu'on ne peut esbranler. (*Sonets pour Héléne XVIII, Liv II*).

Oihenarten zazpi emazte izenak hauxe dira: MARGARITA (II), ARGIA (III), XURIA (IX), GRAZIANA (X), BELTXARANA (XI), JOANA (XIII), EDERRAGOA (XXV).

Ez zaizkigu denak berdin deskribituak:

— GRAZIANA eta JOANAREN blasoinak baditugu, biak ile urreztatudunak, finak, lerdenak dira.

— MARGARITAZ bakarrik dakigu begi urdiñak dituela.

— BELTXARANA izenak ilearen kolorea ematen digu, gainerako deskribapenik gabe.

— ARGIA eta XURIAK azken finean informazio berdina dakarte, argizagien dirdirarena, edertasun sinbolo bezala.

— EDERRAGOA, ez da deskribitua baina tituluaren datza dena.

Gorputz deskribaketatik kanpo, izenetan aurki daiteke ere kalitate moralen berri. GRAZIANAREN Grazia, ARGIA eta XURIAREN Garbitasuna, Birjintasuna, EDERRAGOAREN Onezia.

Batzuetan hitz-jokoek berek erakus dezakete hori.

Izenen inguruan eginak diren hitz-jokoak batzuetan errexak eta ximpleegiak iduritzen baldin bazaizkigu ere guri, xx.mende honen bukaerakooi, ez dugu ahortzi behar garai haietan horrelako jokoak egitea normala zela eta etsenplu goraiatuak bazeudela literaturan, bereziki Petrarca beraren poesian (Laura = erramu hosto), haren segitzaleen obra guzietan eta La Pleiade-n (ikus Ronsard-ek Héléne izenaren inguruan idatzi dituen neurtitzak) edo Siglo de Oro-ko poetetan (Lope de Vega-rentzat Inés Nise bilakatuko da, Elena Filis, Marta Amarilis, Isabel Belisa, eta Garcilaso-rentzat Isabel Freyre, Elisa...); emazte

maitatuaren izen zinezko ala apropos asmatuarekin hitz-jokoak egitea, anagramak erabiliz edo izengoiti erranahikorrek erabiliz, anitz estimatua zen usai bat zen, ja xvii.mendean literatur preziosoak soberakinkerietara eror-araziko zuen usaia eta Molière-n trufagai izanen zena. Gure kasuan ez da Oihenart horrelako muturretara lerratzen.

Hona hemen Oihenartek zazpi andereen izenekin egiten dituen hitz-jokoak:

#### GRAZIANA/Grazia

«Izena du Graziana,  
Graziaz beth' izana;»

Grazia ez da bakarrik izen ximple bat, baizik eta birtute handi bat eta, hitz-jokoak berak aski argi erakusten duen arabera, anderea Ama Birjina «graziaz betea»-ren pare ezartzen da.

#### JOANA/Joan

Oihenartek Joana izenarekin egiten duen hitz-joko errexak gogarazten du ere, denbora berean, emaztearen urruntze/hurbiltzearen arteko dialektika:

#### JOANA

«Haren izena Joana,  
Ez'ote gaizki emana?  
Ezi orai heldu, dena,/nola lizate joana?»

#### MARGARITA

Margaritaren izenarekin Lorea eta perlaren<sup>22</sup> itxurak agertzen dira eta perlarekin batera Venus-en gaia, Ronsard-en poema honetan bezala:

«D'un Océan qui nostre jour limite  
Jusques à l'autre, on ne voit point de fleur,  
Qui de beauté, de grâce & de valeur,  
Puisse combattre au teint de Marguerite,  
Si riche gemme en Orient eslite  
Comme est son lustre affiné de bon heur,  
N'emperla point de la Conche l'honneur  
Ou s'apparut Venus encore petite. (*Les Amours* CLXXXIX)

Berriz aipatzekoa da Ronsard-ek Nabarrako Margarita erreginari eskaini zion poemaren titulua: «A la Marguerite et unique perle de France la royne de Navarre» (La Charité-in *Les Amours*).

<sup>22</sup> MARGARITA = Perla, latinez.

Venus sortu duen maskorraren itxura Fernando de Herrera-ren ondoko neurtitzetan ere perlaren itxurarekin lotzen da:

«Hermosas perlas, que del Oriente  
nacidas en la concha generosa  
se esparcen por el último Occidente» (Elegía 107)

## XURI(A) / ARG(A)

Emaztea ez da bakarrik Argia izenez, haren gorputz guzia argizari bilaka daiteke:

«Bolharr'ask'ilhunbean/argi zerbitzatzeko».  
(X, Graziana)

Laura-ren begien argiek Petrarca argitzen eta gidatzen dute:

«Gentil mia donna, i' veggio  
nel mover de' vostr'occhi un dolce lume  
che mi mostra la via ch'al ciel conduce»; (*Dal Canzoniere*, LXXII)

Ugari dira poetak emaztea Argia edo Xuria deitu dituztenak, edertasuna bera zeruaren argiaren seinale baitaiteke Petrarcaren neurtitzetatik agertzen den ikuspegi neo-platonikoak ongi erakusten duen bezala.

Hona Fernando de Herrera-ren Clara eta Luz:

«Clara, süave luz, alegre y bella» (Soneto 52)

«En esta soledad, que el sol ardiente  
no ofende con sus rayos, estoy puesto,  
a todo el mal de ingrato Amor dispuesto,  
triste y sin mi Luz bella, y siempre ausente» (Soneto 51)

Lope de Vega-ren Lucinda-n ez ote da ere Luz entzuten?

«Lucinda en ti bañó su planta hermosa;  
bien es que su dorado nombre heredes,  
y que con perslas por arenas quedas  
mereciendo besar su nieve y rosa». (*Rimas* 31)

## BELTX(A RANA) =/ XURI(A) - ARG(A)

Zergatik ez pentsa, beraz, Beltxaranaren aipamena Argi eta Ilunaren artean den antitesia aipatzeko erabil daitekeela ere, ohartuz, gainera, Oihenartek berak Argia izenaren aitzikiarekin, gaua (iluna, beltza) egunaren (argi, xuri) par ezartzen duela, ikusten duena itsuaren par ezartzen duen bezala?

«Gauik, egunik  
 Eztinat hunik,  
 Hireki ezpaniz Argia:  
 Hireki ezpaniz Argia:  
 Itsu hutsa niz,  
 Zeren bai hiz en' argia» (III)

Eguna eta gaua, argia eta ilunaren arteko antitesiak arras erabiliak ziren, hona etsenplu bat Petrarca-rengandik hartua:

«Non vidi mai dopo notturna pioggia  
 gir per l'aere sereno stelle erranti,  
 e fiammeggiar fra la rugiada e 'l gielo,  
 ch'i non avesse i begli occhi davanti,  
 ove la stanca mia vita s'appoggia,  
 quali io gli vidi a l'ombra d'un bel velo;  
 (...)

li veggio sfavillare; ond'io sempre ardo.  
 Se 'l sol levarsi sguardo,  
 sento il lume apparir che m'innamora;  
 se tramontarsi al tardo,  
 parmel veder quando si volge altrove  
 lassando tenebroso onde si move». (*Dal Canzoniere*, CXXVII)

eta beste bat Juan Boscán-engandik:

«Como en la mar, después de la tiniebla,  
 pone alborozo el asomar del día,  
 y entonces fue placer la noche oscura<sup>23</sup>» (CXXIII)

## EDERRAGO(A)

Hona nola agertzen zaigun XXV. poeman, seguraski ederra baino haise gehiago den «Ederragoa»:

«Zurekin ezagutze hartzen  
 Hasiz gero, *Ederragoa*  
 Senditu dizut nitan eihartzen,  
 Berzetratko amorioa,  
 Orai eta sekulakoz  
 Zure nizatelakoz».

Ederra baino ederragoa den andre horren aipamen neo-platoniko horrek gogo arazten du ere Ludovico Ariosto-ren soneto baten oihartzuna:

<sup>23</sup> J. BOSCÁN-en baitan (1487/92-1542) atxematen den itxura ikus dezakegu gero SAN JUAN DE LA CRUZ-ek (1542-1591) idatziko zuen *Noche oscura* poema hain famatu hartan.

«Madonna, sète bella e bella tanto,  
Ch'io non veggio di voi cosa più bella» (*Lírica*, soneto XXV)

du Baif-ek imitatuko duena:

«Ma Francine est par tout excellentement belle». (*Amour de Francine* XX).

Morpugo-k, XVI.mendean, bere Costume de la donne-n, zion emazte ederrak hogeitamahiru «betegin» (perfekzione) behar zituela... Honenbertze gauza ttipi, honenbertze gauza borobil, honenbertze xuri, honenbertze gorri e.a. Oihenarten poemetan agertzen diren emazteek ere Morpugo eta, orokorki hartuz, XV.mendetik XVIII.menderaino iraunen duen eme-estetikaren ardatz nagusiak aurkituko ditugu, moralezko beteginak, argiki kultura neo-platoniko baten eragina daukatenak, bazterrera utzi gabe...

## II 3: BETEGINAK

### II 3a: Gorputzaren beteginak:

— Burua *Aurpegi:*

«Ederrenen bardina  
(Ezpadohat' aitzina)  
Da begitartez, eta/diskret oboro ezina»  
(X, Graziana)

«Haren begitartea  
Garbi. arrosaz bethea (x, Graziana);  
«Begitartea hanti/zauka hanbat argitu»  
(XII)

«Haren ahorpegia,  
Zer, baderragu egia,  
(...)  
Zer derrakegu dela/baizik izartegia ?»  
(XIII)

### *Aho, hortz, ezpain, mintzo:*

«Ahoño, mihi ozena,  
Hortzik den aratzena», (X, Graziana)  
«Hortzak aitzintzen, zuriz,/ezein ezne isurkorri» (XIII, Joana)  
«Baitu, eme mintzatzea» (XII)

### *Begiak, begirada:*

«Begi bizi, so hutsaz,/maitarazi diroena»  
(X, Graziana)

«Nol'arrai miratzea» (XII)

«Begi xiloak ditu  
Izar bigez garnitu» (XII)

«Zer, ahatz lakidita  
Haren begi polita?

(...) kanbiatu da/geroz izarretara»  
(XIII, Joana)

«Begi leinhuru goriek,  
Lasto-legez garturik» (XXIV)<sup>24</sup>

«Begiz urdin» (II, Margarita)

*Belarri:*

«Aldiz bi beharriak  
Xuri miragarriak» (XIII Joana)

*Ezpain:*

«Ezpainak badirudi  
Dela koral-isuri  
Hortzak, lepo, bulharra/elhurra bezain xuri».  
(XII)

«Ezpainak arros'orri  
Gorriak bezain gorri»: (XIII, Joana)

*Ile, Adats:*

«Buruko bilo hori  
Urhea bezain hori,  
Bana gordatzen du, eta/salhatz'ezta zori»  
(XII)

«Buru ederreko adatsa  
Laxurik baderatza,  
Badaitso gerrirano/urh'izpiz aberatsa» (XIII, Joana)

«Ile urrestatu horiek» (XXIV)

«BELTXARANA» (XI)

*Kokots (Bidar):*

«perla hutsez bidarra» (XII)

«Bidar-hori, berhala  
Nola boli-zotala» (XIII, Joana)

<sup>24</sup> Ikus RONSARD, «rayons de ses yeux», in *Sonnets pour Hélène* II, III).



*Kopeta (Belar):*

«Kristalez du belarra» (XII)  
«Lehenik, bekokia  
Moldeaz idokia  
iduri, iguzkiareki/argiz ihardukia»  
(XIII)

*Lepo:*

«Lepo'arrai miratzeko,  
Goxo besarkatzeko» (X, Graziana)  
«Lepo'argi mirestek» (X, Graziana)  
«Hortzak, lepo, bulharra/elhurra bezain xuri»  
(XII)  
«Lepoa perla biziz/orhatua bezala»  
(XIII, Joana)

*Matel, Abutz:*

«Mazelak xuri-gorri» (XII)  
«Gero ahutz-araidea,  
Potarentzat lardea,  
Ezt' igeltsu, ezta zilar/bana kristal-ordea»  
(XIII, Joana)

*Sudur, Mutur:*

«Sudurr'oro zilarra» (XII)  
«Oi, zerik du sudurra!  
Ez egi', ez apurra» (XIII, Joana)  
Xorhi, begi-hontgarri,/hala hala muturra.» (XIII, Joana)

**\* Gorputzarenak:**

*Gorputz osoaren itxura:*

Oihenarten poemetan agertzen den emaztea biziki lerdena eta harmoniaduna da; haren gorputzak denetan neurri idealak errespetatzen ditu, ez da lodia, baina ez ere «mehe soberarik», haren gerria, hertsia eta meharra da eta haren gorputza «luzekara»:

«Ezta gupi, ez zehar, ez,  
Bana xuxen bizkarrez,  
Zehe batez lait'izar/gerri hori, meharrez» (X, Graziana)  
«Gorputza duelarik  
Luzekara, halarik  
Xuxen du, et'ezta lodi,/ez mehe soberarik» (XII)

«Kaizuz doi, ezi bara  
 Sorzainak eskuetara  
 Hur'egitean, hartuz,/jakin du zertan bara (XIII)  
 «Haren gorputz lerdena  
 Da nik dudan maitena;  
 Baitare gerri, hersiz,/orotako lehena» (XIII)

*Erhi, Esku, Beso:*

Eskuak eta besoak ohiturak nahi zuen bezala, xuri, guri eta delikatuak izanen dira:

«Ukaraia, besoa,/arhan-lil'-itxurako» (X, Graziana)  
 «Esku eta zango biak,  
 Xuri bezain guriak,  
 Erhi mehe, gaineti/zilharstatu iduriak» (X, Graziana)  
 «Eskua bol'iduri,<sup>25</sup>/beso ezne-gatzatu» (X, Graziana)  
 «Ezkua xuri, nola/arraulze berri erruna<sup>26</sup>» (XII)  
 «Besoia bertz'ororen/patrintzat sor zedina.  
 Esku erri et'ahurra  
 hain xuri, zein elhurra», (XIII, Joana)

*Izter, Zango, Oin:*

Zangoak ere tradizioak nahi zuen bezala, xuriak eta «aratsuak» dira, oinak «meharr eta laburra»-k:

«Oina, kaizuz, nolako ?»  
 Ikusten gogarako»: (X. Graziana)  
 «(...) zango biak,  
 Xuri bezain guriak», (X, Graziana)  
 «Oin, tipiz, herotsduna  
 Zango aratsu, xuguna», (XII)  
 «Zango xorhiki egina  
 Paieruz hob'ezina», (XIII, Joana)  
 «Oina doituz bezala/meharr'eta laburra», (XIII, Joana)

*Sabel:*

Sabelik ez du:

<sup>25</sup> Ikus in OVIDIO «lacte coacto» eta ere in RONSARD: «Et plus que laict caillé gracieuse et tendrette».

<sup>26</sup> Ikus in RONSARD, «le long poli d'une coque de mer», ikus ere in Ovidio.

«Balin balu, sabela  
Garhi nerrake dela,  
Ezi segurtatzeko,/eztu ezagun duela». (XIII, Joana)

*Ugatz, Bulharr:*

Ohi zen bezala, bularrak ere xuri, ttipi eta borobilak izanen dira, Oihenartek gehienbat Marot-ek dioena errepikatzen du:

«Bilharr'ask'ilhunbean/argi zerbitzatzeko». (X, Graziana)

«(...)bularra/elhurra bezain xuri». (XII)

«Ugatz gogor, lar-xuri,  
Leunez balus'iduri;  
Mokoetan xartaturik/Koralez bi mohuri» (XIII, Joana)

Hautuz ez du emaztearen sexuaren deskribaketarik egiten:

Hanbategi beud erranak  
Agerriz dadutzanak  
Eztazkit ezterrazket,/gordailuan daunzanak.» (X)

Behar bada, Marot-ek 1536 ean idatzi neurtitzak goioan zeuzkalakotz:

«En me suivant vous avez blasonné:  
Dont hautement je me sens guerdonné  
L'un de sa part la chevelure blonde,  
L'autre le coeur, l'autre la cuisse ronde,  
L'autre la main décrite proprement,  
L'autre le bel oeil déchiffré doctement,  
L'autre un esprit, cherchant les cieux ouverts,  
L'autre la bouche, où sont plusieurs beaux vers,  
L'autre une larme, et l'autre a fait l'oreille,  
L'autre un sourcil de beauté non pareille,  
(...)  
Mais je vous prie que chacun blasonneur  
Veuille garder en ses écrits honneur:  
Arrière! mots qui sonnent salement,  
Parlons aussi des membres seulement  
Que l'on peut voir sans honte découverts,  
Et des honteux ne souillons point nos vers» (Epîtres, 47).

<sup>27</sup> Ikus MAROT-en *le Blason du Beau Tétin*, neurtitz hauek berriz ezartzen ditut OIHENARTenekin duten ahaidetasuna berriz azpimarratzeko (ikus zati luzeagoa artikuluan, in II 1):

«(...) tetin plus blanc qu'un oeuf»  
(...)  
Tetin dur, non pas Tetin voire  
Mais petite boule d'ivoire  
Au milieu duquel est assise  
Une fraise ou une cerise».

Oihenartek euskaraz aipatzen ditu garai haietako europar poesian emaztearen edertasunaz mintzatzeko erabiltzen ziren itxura berberak. Horrek erakustera ematen digu bere *Art poétique*-en aipatzen dituen idazleetaz gain ongi ezagutzen zituela ere bertze ainitz idazle eta bereziki, Marot eta *La Pleïade*-ko idazle frantsesak eta ere, seguraski, Greziar Antologian bilduak ziren poetak. Ez dadin antikitareta Errenazimenduko poeten «imitazio» hori Oihernarten talendu poetikoaren guttiesteko balia, huts handi bat egin baigenezake. Preseski, H. Weber-ek azpimarratzen duen bezala, imitazio horrek garrantzi berezia ukan izan baitzuen, bai Italian eta bereziki Frantzia La Pleïade-kin, hizkuntza nazionalaren finkatzeko:

«La seule originalité véritable de la Pleïade est dans son refus d'imiter les poètes français qui l'ont précédée pour s'attacher uniquement aux Anciens et aux Italiens. L'imitation des Anciens elle même n'est pas une nouveauté totale. Sans parler de Jean Lemaire et de Marot, qui subissent déjà l'influence de l'humanisme, les poètes du Moyen âge ont connu un certain nombre de poètes anciens, Virgile et Ovide en particulier, (...)

Du Bellay, lorsqu'il trace dans *La Deffence et Illustration* un programme précis de tous les genres anciens à transplanter en français, ne fait que donner un aspect systématique aux tentatives éparses faites en Italie et en France, et il propose comme exemple pour chaque genre aussi bien que des poètes anciens, des poètes italiens ayant écrit soit en latin, soit en langue vulgaire.

Cette imitation des genres antiques n'est pas autant qu'on pourrait le croire un renoncement à la tradition nationale. Elle est au contraire liée à une prise de conscience de la valeur nationale de la langue, qu'il s'agit d'élever à la même dignité que les langues anciennes. (...) Toutefois dans le domaine du style et de la langue, la position des poètes de la Pleïade ne saurait être identique à celle des Italiens, qui possèdent déjà une grande littérature en langue vulgaire avec Dante, Pétrarque et Boccace. (...) En France, la tradition nationale paraissant méprisante aux humanistes, l'imitation portera toujours sur un auteur étranger, qu'il soit latin, grec ou italien».<sup>28</sup>

Poemen aitzin solasean ikus daitekeenez, Oihenartek ere bazeukan nonbait horrelako asmo bat euskarari buruz:

<sup>28</sup> H. WEBER, in op. cit. 118. or.  
Oroit gaitzen ere J. PELETIER du MANSen (1517-1582) neurtitz hauetaz:

«J'écris en langue maternelle,  
Et tâche à la mettre en valeur,  
Afin de la rendre éternelle  
Comme les vieux ont fait la leur,  
Et soutiens que c'est grand malheur  
Que son propre bien mépriser  
Pour autrui tant Favoriser.

(A un poète qui n'écrivait qu'en latin,  
*Vers lyriques*, 1547)

«C'est ce qui m'a obligé, après avoir parlé de ces Règles en un autre ouvrage, à souffrir que ce peu de Vers, qui m'étaient échappés en mon jeune âge, voie le jour, afin qu'il apparaisse que la pratique de ces Règles n'est pas si malaisée en notre langue qu'aucuns se sont persuadés, et non point pour autre sujet».

II 2c: *Moralezko beteginak*

Usaiak manatzen zuen bezala, Oihenarten amodiozko poesia gehienetan amorantea emazte ederraren esker txarraz kexu da, hona Grazianaz, «dohainetan (...) harzaz maitatu»a izan nahi lukeenak, diona:

«Elkoit dakit elkorra,  
Esker gabe, gotorra,  
Del' enetzat, bait'are / harri bezain gogorra». (X)

Halere badago edertasun eta birtuterik baduenik:

«Hur'ezagutzen duten  
Oro haren bertuten,  
Goresten, eta bertzer/ari dir'ezanzutzen». (XII)

Bainan Joanaren edertasuna da denetan hutsik gabekoa, betegina: haren gorputzaren edertasuna birtute oso eta preziatuen altxor baizik ez da, Errenazimenduko ikuspegi neoplatonikoak nahi zuen bezala:

«Zeren baita hain haitu,  
Eta zeren garhaitu  
Prestuz, et'ontarzunez,/bertze nesk'oro baitu,

«Zeren dena guzia  
Baita ber-zuhurtzia,  
Eta jakitarzunez/orozaz gainti utzia.

Mintzatze ederretako  
Zpritu are hobetako,  
Adimenduz, eranzun/nik ezin bezalako». (XIII)

Gainera, bakarra da segurtasun osoz noble bezala agertzen zaiguna, bakarra, Erdi Aroko modan klarki «kortosatzen» dena, birtuterik baizik ez duena, eta bakarra «Ederragoa»rekin (XXV), maitasun platonikoz maita daitekeena:

«Zurekin izatera haizu  
Ezpaniz ere gorpitzez,  
Alabadere banarraizu  
Bethi gogoz, et'orhitzez». (XXV)

horregatik du XIII. poesiak azpi titulu bat: *Joanaren betheginzarrea*:

«Orduan pausu nuke  
Eta nihaur neduke,  
Handiago baninz ezi/Baroin, Kont', edo Duke». (XIII)

«Banau er'iraiziko,  
Eztut ez gaitzetsiko  
Baizik ogen guzia/nihaurtar' egotziko». (XIII)

Edertasuna kasu horietan barneko birtuteen miraila da, Gilles Corrozetek, 1540-ean, «Amour accompagnée de vertu»-n, ongi agertzen duen bezala:

«Voicy amour parent de chasteté  
Beauté, bonté, douceur, honnesteté,  
Sont avecq luy.  
Voila vertu, Royne des bien heureux,  
Qui est auprès du Roy des amoureux,  
Comme compaigne». (*L'Hécatomgraphie*)

Santillana-ko Markesaren ondoko nehurtitz hauek ongi dagerte edertasun betegina, amodioa, azkenean betegin jainkotiarraren miraila bertzerik ez direla.

«Dios vos fizo sin emienda  
de gentil persona y cara,  
e sumando sin contienda,  
qual Gioto non vos pintara.

Fizovos mas generosa,  
digna de ser coronada,  
e reyna muy poderosa.

Siempre la virtud fuyo  
a la extrema fealdad,  
e ceemos se fallo  
en compañía de beldat;  
pues non es quistion duddosa  
ser vos su propia morada,  
illustre Reyna hermosa». (Canción a la reina in *Canciones y decires*)

«Después de la mas cercana  
a la fama en fermosura,  
ques mas divina que umana,  
visto su gesto e figura,  
vos, señora doña Juana,  
sois la mas gentil criatura  
de quantas actor explana,  
nin poeta en escriptura». (Loor a Doña Juana de Urgel Condesa de Fox, *Canciones y decires*)

Halere, horrelako etsenpluak bakanak ditugu Oihenarten poesian; eta bakantasun hori Joana deritzan andereari lotua denez bereziki, arrazoinak bagenituzke pentsatzeko Joana, Joana Erdoy, andere noblea, Oihenartek berak kortesatzen zuen emazte gaia dela...

Nolaz ez oroitu, bertzalde, Joana Erdoyen heriotzaz Oihenartek idatzi zituen hitz hunkikorretaz?

«Utzi derautazue hiltzera  
Joana, ene bizi erazitera  
Berainik lurrer'etorria,  
Edo zerutik igorria;  
Joan', en' emazte karioa,  
Ene bihotz' ene gogoia».

Azken hitz bat gehitzekotan, berriz erratekoa liteke Oihenart, xvii. mendedian oraindik, arrunt Errenazimenduko gizon agertzen zaigula. Humanista bat. Bere amodio-poesian, ikusi dugun bezala, neo-petrarkistatzat on har daiteke dudarik gabe.

Gizon bat, Oihenart, Europan hain luzaz, eta hainbertze leku hartu zuen uhain literario batean koka daitekeena... Bixtan dena, ez dio emazteari, zinezko emazteari, lekurik uzten; gure bidai labur honetan ez dugu, ez amarik, ez emazte langilerik<sup>28bis</sup>, ez emazte intelektual edo artistarik kurutzatu. Oihenarten amodio-poemetan agertzen den emaztearen esistentzia maitasun mota berezi baten inguruan dagon joko baten menpe baizik ez da agertzen. Eta emaztea ez ote da, nonbait, ainitzetan literaturan gertatu izan den bezala, bakarrik J.P.D. Desaiive-k «la femme prétexte»<sup>29</sup> deitzen duena bakarrik?, emazte-aitzaki, idazleak idazteko orenean duen gai bat baizik ez, odolezko eta hezurrezko emazteaz gutti axola dena?

Dena den, Oihenarten meritu izigarria izan da hori dena euskaraz ematea, euskarari negurri hori lort-araztea, seguraski obrak galdu zaizkigun bertze bere garaiko poeta batzuekin batera. Bere hizkuntza bortxatuz, bere hizkuntza europako kultura eta pentsamolde inportanteenetarik batean parte araziz ezin eskertu daitekeen zerbitzua eman digu, Lizardik eta bertze xx.mende bukaera honetako euskal poeta bakan batzuek ongi sumatzen eta dakiten bezala. Nola ahantz, bertzalde, bere poesian han hemenka diren azentu harrigarriak, goreneta-ko heinekoak? Urriki bakarra, bertze amodio-hizkuntza bat, ez hain prezioso, zuzenagoa, ez erabilia izatea ere, ezagutzen ditugun poema petrarkistetarik ez jalgitzen jakitea, ez, azkenean, Du Bellay-ren oldarrak kutsatu izatea:

«J'ai oublié l'art de pétrarquiser,  
Je veux d'amour franchement deviser,  
Sans vous flatter et sans me déguiser:

<sup>28 bis</sup> Ez da amodio poema batean agertzen, baina halere erran dezagun Joana ERDOY nekazaritzako lanetan (ikus in *bil kexua*) kultura greko-latinoan mamitua den ixura literario bat dirudi dela, errealitatearen miraila bat baino.

<sup>29</sup> P. DESAIVE: «Les ambiguïtés du discours littéraire» in *Histoire des femmes* op.cit. 275 orrialdetik 277.ra.

Ceux qui font tant de plaintes  
N'ont pas le quart d'une vraie amitié,  
Et n'ont pas tant de peine la moitié,  
Comme leurs yeux, pour vous faire pitié,  
Jettent de larmes feintes.

Ce n'est que feu de leurs froides chaleurs,  
Ce n'est qu'horreur de leurs feintes douleurs,  
Ce n'est encor de leurs soupirs et pleurs

Que vent, pluies et orages,  
Et bref, ce n'est, à ouïr leurs chansons,  
De leurs amours que flammes et glaçons,  
Flèches, liens, et mille autres façons  
De semblables outrages.

De vos beautés, ce n'est que tout fin or,  
Perles, cristal, marbre et ivoire encor,  
Et tout l'honneur de l'Indique trésor,  
Fleurs, lis, oeillets et roses;

(...)

Je ris souvent, voyant pleurer ces fous,  
Qui mille Fois voudraient mourir pour vous,  
Si vous croyez de leur parler si doux

Le parjure artifice;  
Mais quant à moi, sans feindre ni pleurer,  
Touchant ce point je vous puis assurer  
Que je veux sain et dispos demeurer,  
Pour vous faire service. (...)

(«A une dame», *Recueil de poésies*, 1553)

## BIBLIOGRAFIA

Oihenarti buruz:

A.S.J.U. (1955) (Ikus R. LAFON.en lana: «Nores pour une édition critique et une traduction...»)

*Bulletin du Musée Basque* (monografikoa), 1992.ko I. zenb., Baiona.

FRANCISSQUE MICHEL: «Arnaud Oihenart» in *Le Pays Basque*, Ed. Itxaropena 1983.

*Hegats 7* (monografikoa), Iruñea 1992.

*Jakin 45*, Emakumea eta Literatua (ikusT. IRASTORTZA-ren artikulua «Emakumezkoa gizonezkoen literaturan: Euskal literaturari errepassoa». Lasarte 1977.



*Jakin 74*, (Ikus B OYARÇABAL: «Oihenart eta Euskal Herria»; J. AGIRREAZKUENAGA: «Oihenart eta bere garaia» eta M. GOIHENETXE: «Oihenart eta bere ingurugiroa»)

MITXELENA K.: «Arnaut Oihenart», in Koldo Mitxelena, *Euskal idazlan guztiak V-Literaturaren inguruan II*. Klasikoak, Kriselu, Zarautz 1988.

OIHENART A.: *Proverbes et poésies basques*. Ed. Izpegi, Baigorri 1992.

«L'art poétique basque» (in *Gure Herria 1967* Ikus P. LAFITTE-en presentaketa, eta in *Hegats VII* ikus P. URKIZUren presentaketa eta euskal itzulpena).

*Garaiaz eta bertze: Lirica a cura di G. Fatini. Bari-laterza, 1924.*

ARIOSTO L.: *LIRICA*. A Cura di G. Fatini. Bari-laterza, 1924.

*Roland furieux*. Textes choisis et présentés par Italo Calvino, CG. Flammarion, Paris 1982.

BIGI E.: *La rassegna della letteratura italiana. 1953.*

BOSCAN J.: *Poesía*. Ed. Orbis, Barcelona 1983.

BRASILLACH R.: *Anthologie de la poésie grecque*. Stock, Paris 1981.

DARCOS X., ROBERT J.P., TARTAYRE B.: **Le Moyen Age et le xvie siècle en Littérature**. Hachette, Poitiers 1987.

DE HERRERA F.: *Poesía*. Ed. Orbis, Barcelona 1983.

DE LA VEGA G.: *Poesía castellana completa*. Ed. Orbis, Barcelona 1983.

RUCHON F., BOASE A.: *La vie et l'oeuvre de Jean de Sponde* P. Cailler. Ed., Genève 1949.

DE VEGA L.: *El caballero de Olmedo. Peribañez y el comendador de Ocaña*. Ed. Orbis, Barcelona 1983.

- *Antología poética*. Ed. Orbis, Barcelona 1983.

DI LAMPEDUSA G.I.: *Conversaciones literarias. Invitación a las letras francesas del siglo xvi*. Bruguera. Barcelona 1983.

DUBY G., PERROT M.: *Histoire des Femmes du xvie au xviii siècle*, sous la direction de N. Zemon Davis et A. Farges. Plon, Paris 1991.

JONES R.O.: *Historia de la literatura española, Siglo de Oro: prosa y poesía*. Ariel, Barcelona 1982.

LAFONT R.: *Renaissance du Sud, essai sur la littérature occitane au temps de Henri IV*, Gallimard, Paris 1970.

*La Légende Arthurienne, Le Graal et la Table Ronde*. R. Laffont, Paris 1989.

LAZARO CARRETER F.: *Estilo barroco y personalidad creadora*. Cátedra, Madrid 1974.

*Les visages de l'amour au XVIII<sup>e</sup> siècle.* Travaux de l'université de Toulouse Le Mirail, série A, tome XXIV, Toulouse 1984.

MAROT C.: *Oeuvres complètes.* Ed. Grenier.

PETRARQUE: *Dal Canzoniere/Le Chansonnier.* Bilingue Aubier Flammarion, Paris 1969.

PLATON: *Le Banquet ou De l'amour.* Gallimard, Paris 1973.

PRAZ M.: *La chair, la mort et le diable dans la littérature du XIX<sup>e</sup> siècle, le romantisme noir.* Denoël, Paris 1977.

QUENEAU R. (sous la direction de): *Histoire des Littératures II.* Encyclopédie de La Pleïade, Gallimard, Paris 1968.

RONSARD: *Les Amours* (Edition de H. et C. Weber). Garnier, Paris 1963.

SABATIER R.: *Histoire de la poésie française, La poésie du XVIII<sup>e</sup> siècle.* Albin Michel, Paris 1975.

SANTILLANA (MARQUÉS DE): *Serranillas, canciones y decires.* Ed. Orbis, Barcelona 1983.

SCEVE M.: *Oeuvres.* Ed. Guégan.

WEBER H.: *La création poétique au XVII<sup>e</sup> siècle en France de Maurice Scève à Agrippa d'Aubigné.* Librairie Nizet, Paris, 1955.